Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

PLA 15-C/2020

| | |
|---|---|
| **KONTRATU MOTA:** | **OBRAK** |
| **PROZEDURA:** | **IREKI SINPLIFIKATUA** |
| **LIZITAZIO ELEKTRONIKOA** | |

**Tramitazioa** [X] **Arrunta** [ ] **Presazkoa**

**Tramitazio aurreratua** [ ]

**Espedientearen kodea:**
**1-I-17/2017**

**ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA**

**EZAUGARRIEN TAULA**

| **1.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA** | |
|---|---|
| Administrazio kontratatzailea | Gipuzkoako Foru Aldundia |
| Kontratazio organoa | Diputatuen Kontseilua |
| Departamentua / Kudeaketa zerbitzua | Bide Azpiegituretako Departamentua |
| Depart./Kudeak. zerb.aren helbidea | Miramon pasealekua 166, 20014 Donostia |
| Helbide elektronikoa | bidekontratazioa@gipuzkoa.eus |
| Izapidetze unitatea | Bide Azpiegituretako Departamentuko Kontratazio Zerbitzua |
| Kontabilitatean eskumenak dituen organoa | Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontuetako Zuzendaritza Nagusiaren Kontabilitate Zerbitzua |

| **2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA:** | https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/kontratatzailearen-profila-berria |
|---|---|

| **3- KONTRATUAREN OBJEKTUA** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Meagako gainean (Getaria) biribilgunea egiteko proiektuko obrak gauzatzea | | | | |
| CPV kodea(k) 45233128-2 | | | | |
| Sortaka lizitatzeko aukera | BAI | | EZ | X |

| **4.- PROIEKTUAREN EGILEAK** |
|---|
| Antton Jaime Ugarte, Iñaki Jaime Azpiazu ete José Asín Pérez (Injelan SL) |

| **5.- LIZITAZIO AURREKONTUA (BEZa BARNE)** | |
|---|---|
| Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (% 21 BEZa barne) | 587.660,20 € |
| Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren xehapena | Zuzeneko eta zeharkako kostuak eta bere determinaziorako kalkulatutako gastu ebentualak obra proiektuaren aurrekontu eguneratuaren 2. prezio taulan |



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

| | |
|---|---|
| | ezarritakoak izango dira. |

| 6.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZa SARTU GABE) |
|---|
| Zenbatekoa: 582.803,50 |

| 7.- FINANTZAKETA | Portzentajea |
|---|---|
| Foru Aldundia | % 100 |

| 8.- URTEKOAK | | |
|---|---|---|
| EKITALDIA | AURREKONTU PARTIDAK | ZENBATEKOA |
| 2020 | 0810.100.611.02.11 | 587.660,20 € |

| 9.- OBRAK GAUZATZEKO EPEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Epe osoa: bost hilabete (5) | | | | | |
| Epe partzialak | BAI | | EZ | X | |
| Harrera partzialak | BAI | | EZ | X | |

| 10.- ORDAINTZEKO ERA |
|---|
| Hileroko ziurtagirietan |

| 11.- ALDAERAK ONARTZEA | | |
|---|---|---|
| BAI | | Baldintzak, modalitateak eta alderdiak |
| EZ | **X** | |

| 12.- PREZIO BERRIKUSPENA | | |
|---|---|---|
| BAI | | Berrikuspen formulak: |
| EZ | **X** | |

| 13.- BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1) BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK (SPKLren 65. artikulua)** | | | | |
| Bidezkoa da | BAI | | EZ | X |
| **2) KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA** | | | | |
| **3) KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA** | | | | |
| **4) SAILKAPENA:** | | | | |
| Nahitaezkoa | BAI | X | EZ | |

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

| TALDEA | AZPITALDEA | KATEGORIA<br>**Aurkezpen epea 2022/01/01aren aurretik amaitzen zaien eskaintzen kasuan (2021/01/01 zenbatekoa bost milioi eurotik gorakoa bada), bi sailkapen sistemek balio izango dute kategoria egiaztatzeko.** | |
|---|---|---|---|
| | | *773/2015 Errege Dekretuaren aurreko tipologia* | *Tipologia berria 773/2015 Errege Dekretua* |
| G | 4 | d | 3 |

**5) INGURUMEN KUDEAKETARAKO ETA KALITATEAREN KUDEAKETARAKO ARAUAK BETETZEN DIRELAKO EGIAZTAPENA**

BAI [ ] EZ [X]

**14.- BITARTEKOAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA**

BAI [ ] EZ [X]

| **15.- AZPIKONTRATAZIOA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Puntuazio onena lortzen duen enpresak azpikontrataziorako aurreikusitako kontratuaren zatia adierazi behar du. | BAI | X | EZ | | |
| Azpikontratisten aldeko zuzeneko ordainketak | BAI | | EZ | X | |
| Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoak | BAI | | EZ | X | |

| **16.- BERMEAK** | |
|---|---|
| BEHIN BETIKOA | BAI [X] EZ [ ] Adjudikazio zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe)) |
| OSAGARRIA | BAI [ ] EZ [X] |
| BERME EPEA | Urtebete (1), obrak jasotzen direnetik |

**17.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK**

**1) BALIO IRIZPIDEEN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK**

| BAI | X | EZ | |
|---|---|---|---|

| **<u>Obraren azterlana eta lan programa zehazten duen memoria teknikoa</u>**<br><br>Eskaintzetan ondorengo atalak garatu beharko dira, eta atal bakoitzaren zuzentasuna, | **<u>0 – 20 puntu</u>** |
|---|---|



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

| | |
|---|---|
| azterketaren xehetasun maila eta lizitazioaren xede den kontratuarekiko egokitasuna baloratuko dira. | |
| ○ Egin beharreko lanen plangintza orokorra eta obraren oinarrizko zailtasunak antzematea (DIN A4 10 orri gehienez) | 0 – 5 puntu |
| ○ Zailtasun handienak antzematea | 0 – 4 puntu |
| ○ Lanen plangintza orokorra | 0 – 1 puntu |
| ○ Lanak egingo diren eremuaren gertutasun eta ezagutza maila (DIN A4 3 orri gehienez) | 0 – 2 puntu |
| ○ Obraren zati bakoitzak zirkulazioan izango duen eraginen murrizketaren azterlana (DIN A4 5 orri gehienez) | 0 – 3 puntu |
| ○ Lan-programa eta proposatutako programazioa GANTTen diagramaren bidez (gehienez ere DIN A3 orri 1) Lan bakoitzarekin zerikusia duten errendimenduen justifikazioa, epe orokor eta partzialen arabera eskainitako giza baliabide eta bitarteko materialekin (gehienez 5 orri, DIN A4, bi aldeetatik – 10 orrialde-. | 0 – 10 puntu |
| ○ Proposatutako lan programa | 0-5 puntu |
| ○ Errendimenduen justifikazioa | 0-1 puntu |
| ○ Lan programaren eta errendimenduen arteko koherentzia | 0-2 puntu |
| **Ingurumen arloko hobekuntzak** | **0 – 5 puntu** |
| Soilik balioetsiko dira bideragarritzat jotzen diren proposamenak, eta esplizituki azaltzen dutenak beren kostua egindako eskaintza ekonomikoaren barruan dagoela (gehienez DIN A4 10 orri) | |
| ○ Obraren ingurumen plana, barruan duena eraginen identifikazioa eta neurri zuzentzaileak, eta ingurumen zaintzaren plana. | 0 – 5 puntu |

**Lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BAT zenbakiko artxibo elektronikoetan formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko dokumentazioa (BI zenbakiko artxibo elektronikoa) sartzen dutenak.**

**AURKEZTEN DIREN TESTU IDATZIETAN DERRIGORREAN BETETZEKO IRIZPIDEAK (GRAFIKOAK, ARGAZKIAK, DIAGRAMAK ETA ABAR ALDE BATERA UTZITA).**

Irizpide hauei dagokionez, aurkezten diren testu idatzi guztien idazkerak ondoko parametroak bete beharko dituzte:
Dokumentazioaren gehieneko luzera (azalak edo indizeak kontuan hartu gabe):

- Gutxieneko marjinak:
  Behekoa eta goikoa: 2,5 cm,
  Ezkerrean-eskuinean: 3 cm
- Letra mota eta neurria: arial arrunta, tamaina 10 gutxienez
- Lerroartea: bakuna

**2) FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ BALIOSTEKO IRIZPIDEAK**

| Irizpidea | Haztapena |
|---|---|
| Prezioa | **0 – 75 puntu** |

**PREZIOA (FORMULA):**

Onartutako proposamenetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, jarraian adierazitako puntuek definitzen dute zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan, interpolazio lineala egingo da.

Beherapen maximoa (BMAX) Puntuazio maximoa irekieran (PMAXir)

Beherapen maximoaren eta batez besteko beherapenaren arteko beherapen distantziakidea



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

| | |
|---|---|
| (BBB+0,5 x (BMAX-BBB)) | PMAXir*(100-0,05 x BBB)/100 |
| Batez besteko beherapena (BBB) | P(BBB+0,5 x (BMAX-BBB)) x (100-0,1 x BBB)/100 |
| Batez besteko beherapenaren % 50 (0,50xBBB) | (PBBB) x (100-BBB)/100 |
| Beherapena=0 (Lizitazio prezioa) | Puntuazio nulua |

Formulak horiek aplikatzeko, beherapena (B) honela kalkulatuko da: Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, ehunekotan adierazita.

P(BBB+0,5x(BMAX-BBB)) da beherapen ekidistantearen puntuazioa Beherapen Maximoren eta Bataz besteko Beherapenaren artean, eta PBBB da Bataz besteko Beherapenaren puntuazioa.

BMAXir izendatzen da irekierarekin lotutako gehienezko puntuazioa, bere gehienezko balioa BMAX eran emenda, eta BBB eta BMAX direlakoen arabera kalkulatzen da, horrela:

Beherapen maximoaren portzentajea, ken batez besteko beherapen portzentajea % 5 baino gutxiago edo berdina bada, (BMAX-BBB) ≤5 :

PMAXir=PMAXx(BMAX-BBB)/5

Beherapen maximo portzentajezkoa ken bataz besteko beherapena % 5 baino handiagoa bada (BMAX-BBB >5):

PMAXir=PMAX

Eskaintzako alderdi ekonomikoen azken balorazioa bigarren hamarrekoan biribilduko da.

**Parametroak, balio anormalak edo neurrigabeak dituen eskaintza bat kontuan hartzeko**

Hasiera batean, modu ezohikoan baxu modura hartuko dira onartutako eskaintzetako prezio guztien batez besteko aritmetikoaren % 10 baino gehiagoan baxuagoak direnak. Ikusi 28. klausula.

## 18.- EGIKARITZEAREN BALDINTZA SOZIAL BEREZIAK BETETZEA

Kontratu honetan bete beharko dira lan arloko, gizarte segurantza arloko eta lan segurtasun eta osasun arloko lege, arau eta hitzarmenak eta, bereziki, Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboaren azken testua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa; betiere, eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoak.

Era berean, kontratu honetan bete beharko dira azpikontratazio arloko izaera sozialeko betebeharrak, desgaitasunen bat duten pertsonen enplegua sustatzekoak, nahiz emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzekoak, betiere baldintza agirian zehaztutako moduan.

## 19.- EGIKARITZEKO BESTE BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak *“kontratua egikaritzeko baldintza berezien” 36.2 klausulan* aurreikusitakoak dira.

## 20.- KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Kontratu honen funtsezko betebeharrak SPKLan eta baldintza agirian aurreikusitakoak dira.

## 21.- LAN PROGRAMA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Kontratistak aurkeztu behar du: | BAI | X | EZ | |

## 22.- AURREIKUSITAKO KONTRATU ALDAKETAK

BAI [X] EZ [ ]

Proposatutako betelanak egindako kalkuluen arabera baloratu dira, baina betelanaren zimendua hondeatu ondoren lursailaren euste-ahalmena aurreikusitakoa baino txikiagoa dela ikusten bada, proiektuko 1. kapitulua (aurretiko lanak, lur-mugimenduak eta desmuntaketak) aldatu ahal izango da, benetako beharretara egokitzeko.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

Ukitutako zerbitzuen trazadura tokian tokiko ikuskapenetatik eta titularrek emandako informaziotik abiatuta lortu da. Zerbitzu horiek proiektuaren arabera aurreikusitako kanalizazioak egitea galarazten badute, 7. kapitulua (Ukitutako zerbitzuak) aldatu ahalko da.

Horrek guztiak proiektua aipatutako kapituluetan aldatzea ekar dezake, aldaketaren zenbatekora iritsi arte, kontratuaren hasierako prezioaren% 20 gehienez.

**23.- ZIGORRAK**

Badagozkio BAI ☒ EZ ☐

Kontratu honi aplikatu beharreko zigorrak Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta agiriko klausuletan aurreikusitakoak dira.

**24.- ASEGURUAK**

ERANTZUN ZIBILEKO ASEGURUA: 587.660,20 €

ERAIKUNTZAKO ARRISKU OROTARIKO ASEGURUA:

- Adjudikazio zenbateko osoaren arabera (BEZa barne).
- Proiektuan izandako aldaketak direla medio kontratuaren zenbatekoa aldatzen bada, kapital bermatua proportzio berean aldatuko da.

**25.- LIZITATZAILEAK KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA**

Kontratua ez adjudikatu edo gauzatzeko edo prozedura bertan behera uzteko erabakiaren aurrean, kontratazio-organoak hala adostuta, enpresa lizitatzaileei konpentsazioa emango zaie sortu zaizkien gastuen ondorioz, gehienez 1.000,00 euroko zenbatekora arte.

**26.- PRESTAKETA LANEI DAGOZKIEN KONTURAKO ORDAINKETAK**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Instalazioak eta materialengatik | BAI | ☐ | EZ | X |
| Instalazioak eta ekipamenduengatik | BAI | ☐ | EZ | X |

**27.- SAIAKUNTZAK**

Obrako material eta unitateen entsegu eta azterketak egitetik eratorritako gastuak eta jasotzen diren txosten espezifikoenak, kontratistaren kontura izango dira, obrako prezioaren % 1era arte gehienez.

**28.- ERAIKITZEKO ETA ERAISTEKO HONDAKINEN ARLOKO PLANA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Plan aurkeztea dagokio | BAI | X | EZ | ☐ |

**29.- OBRAREN GAUZATZEA AMAITU DELA OHARTARAZTEKO EPEA**



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

| | |
|---|---|
| 45 egun baliodun | |
| Bestelako epe laburrago bat (10 egun baliodun) | X |

| 30.- AZKEN ZIURTAPENA ONARTZEKO EPEA | |
|---|---|
| 3 hilabete | X |
| Beste epe bat > 3 hilabete eta < 5 hilabete | |

**31.- BESTE ZEHAZTAPEN OSAGARRI BATZUK**

Ez da eskatzen

| 32.- KONTRATAZIO MAHAIA | |
|---|---|
| MAHAIBURUA: | Bide Artapeneko eta Kudeaketako zerbitzuburua, Iñigo Zufiria Zatarain |
| MAHAIBURUORDEA ETA 1. BOKALA: | Bide Azpiegituren Birgaitze eta Berrikuntza Zerbitzuko burua, Susana Luzuriaga Mocoroa |
| 2. BOKALA: | Bide Azpiegituren Proiektu eta Eraikuntza Zerbitzuko Obra eta Proiektuen Zuzendaritza eta Kontrolaren Ataleko burua, Germán Pozas Zubizarreta |
| 3. BOKALA: | Departamentuko idazkari teknikoa, Elixabete Martínez Iruretagoiena |
| 4. BOKALA: | Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailetza eta Auditoretzako zerbitzuburua, Itziar Aristondo Fernández |
| IDAZKARIA: | Errepideetako Lege eta Administrazio Ataleko burua, Jon Ander Arrieta Berasarte |

**33.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA**

Proposamenak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da gutxienez, lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Diputatuaren Kontseiluaren 2020ko martxoaren 24ko 17-C/2020 Erabakiaz onartua

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Elixabete Martinez Iruretagoiena.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

**AURKIBIDEA**

**I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK....... 1**
1.- Kontratuaren objektua....... 1
2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak....... 1
3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua....... 1
4.- Kontratuaren balio zenbatetsia....... 1
5.- Kontratuaren prezioa....... 1
6.- Kreditua izatea....... 1
7.- Obrak gauzatzeko epea....... 2
8.- Prezio berrikuspena....... 2
9.- Kontratuaren publizitatea....... 2
10.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan....... 2
11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak....... 2
12.- Errekurtso araubidea....... 3
**II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA....... 3**
13.- Espediente mota eta lizitazio modua....... 3
14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak....... 3
15.- Proposamenak aurkeztea....... 4
16.- Lizitatzaileei informazioa ematea....... 4
17.- Proposamenen edukia....... 4
18.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoa: “BALIO IRIZPIDEEN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” (BAT zenbakiko artxiboa dagoenean bakarrik)....... 5
19.- BI zenbakiko artxibo elektronikoa: “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” (BAT zenbakiko artxiborik ez dagoenean, artxibo BAKARRA izango da)....... 5
20.- Aldaerak onartzea....... 6
21.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak....... 6
22.- Kontratazio mahaia....... 7
23.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea....... 7
    23.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (bakarrik BAT zenbakiko artxibo elektronikorik badagoenean)....... 7
    23.2.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea....... 7
    23.3.- Kontratazio mahaiaren aktak....... 8
24.- Balio irizpideen bidez kalifikatu daitezkeen adjudikazio irizpideen balorazio txostena eta kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea, eta lizitatzaile ukituei jakinaraztea....... 8
25.- Adjudikazio irizpideak....... 8
26.- Eskaintzak baloratzea....... 8
27.- Eskaintzak argitzea....... 9
28.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak....... 9
29.- Prozedurako ondorengotza....... 9
30.- Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio prozeduran Administrazioak atzera egitea....... 9
31.- Adjudikazioa....... 10

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

31.1.- Eskaintzak sailkatzea, kalitate-prezio erlaziorik oneneko eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko beharkizunen egiaztagiriak aurkeztea eta adjudikazio proposamena egitea. 10
31.2. - Behin betiko bermea 11
31.3.- Adjudikazioa 11
32.- Kontratua formalizatzea 12
**III. KAPITULUA - KONTRATUA EGIKARITZEA 12**
33.- Kontratuaren arduraduna 12
34.- Kontratistaren ondorengotza 13
35.- Kontratua besteri lagatzea 13
36.- Enpresa kontratistaren betetze baldintzak eta betebeharrak 14
36.1.- Baldintza orokorrak 14
36.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak 14
36.2.1.- Enpresa kontratistak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan dituen betebeharrak 14
36.2.2.- Bete beharreko hizkuntza betebeharrak 16
36.2.3.- Emakume eta gizonen berdintasun arloko betebeharrak 16
36.3.- Informazioaren segurtasun arloko betebeharrak 18
36.4.- Kontratazio publikoari aplikatzeko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua betetzeari buruzko betebeharrak 19
36.5.- Eraikitzeko eta eraisteko hondakinen arloko betebeharrak 19
36.6.- Lantaldeari eta langileei buruzko betebeharrak 19
36.7.- Makineriari eta bitarteko teknikoei buruzko betebeharrak 20
36.8.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak 20
37.- Kontratistari eskatu ahal zaizkion gastuak 20
38.- Klausula sozialak ez betetzearen ondorio juridikoak 20
39.- Berandutze zigorrak eta beste zigor batzuk 23
40.- Zuinketa egiaztatzea 24
41.- Lan programa 25
42.- Laneko segurtasun eta osasun plana 25
43.- Beste batzuei eragindako kalteak eta galerak 26
44.- Obretan gertatuko kalteak 26
45.- Kontratuaren aldaketak 27
45.1.- Aldaketa aurreikusiak 27
45.2.- Aldaketa aurreikusi gabeak 28
46.- Obrak etetea 28
47.- Neurketak, balorazioa eta konturako ordainketak 28
48.- Obraren egikaritzea amaitu dela ohartaraztea 30
49.- Obraren harrera 30
50.- Neurketa orokorra eta azken ziurtapena 30
51.- Berme epea eta likidazioa 30
52.- Ezkutuko akatsen gaineko erantzukizuna 31
53.- Kontratua suntsiaraztea 31
54.- Obrak ondare eta eskubideen inbentario nagusira gaineratzea 32
55.- Kontraesanak 32
**I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK 33**
**I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK 34**

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa


II. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA..................35

III. ERANSKINA.- ABAL EREDUA....................................................................................................37

IV. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA, ERANTZUNKIZUN ADIERAZPENAREKIN.............................................................38

V. ERANSKINA.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEEN EBALUAZIO SISTEMAREN PROPOSAMENA ETA IZAERA SOZIALEKO BALDINTZA BEREZIAK.......................................................................................41


JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

## I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

### 1.- Kontratuaren objektua

1.- Kontratuaren objektua klausula agiri honetako ezaugarrien taularen **3. atalean** aipatutako proiektuko obren exekuzioa da. Hala badagokio, kontuan hartu beharko dira Europako Parlamentuko eta Kontseiluko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) bigarren liburuko I. tituluan aurreikusten dituen kasuetan tramitatu daitezkeen aldaketak.

Atal horretan horrela ezartzen denean, sortaka egingo da lizitazioa, bertan deskribatzen diren baldintzak eta mugak aplikaturik, SPKLren 99. artikuluak dioenarekin bat. klausula agiri honetan kontratuari edo enpresa adjudikaziodunari egindako aipamen guztiak kontratuaren objektua banatzen den sorta bakoitzari egindakotzat joko dira.

2.- Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taulako **3. atalean** dago jasota.

### 2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak

1.- Kontratu honen bidez obrako proiektuaren memorian deskribatzen diren premiak aseko dira, bertan deskribatutako eta planoetan zehaztutako obrak egikarituz, eta preskripzio tekniko partikularren agirian jasotzen diren ezaugarriak eta kalitatea betez.

2.- Proiektu horrek, hura onartzeko ebazpenetik ondorioztatzen denez, SPKL legearen 233. artikuluan eskatutako dokumentu guztiak ditu, hura eratzerakoan HAKLAO erregelamenduaren II. liburuko I. tituluko II. kapituluko 2. sekzioan zehazten dena betez.

### 3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa, ezaugarrien taulako **5. atalean** balio erantsiaren gaineko zerga barne harturik, maximotzat adierazten dena da eta SPKLren 100.2 artikuluak zehaztutakoaren arabera kalkulatu da.

### 4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta ezaugarrien taulako **6. atalean** jasoa, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatuko zaion adjudikazio prozedura eta izango duen publizitatea aukeratzeko, bai eta pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun baldintzak eta aplikatzeko errekurtsoen araubidea finkatzeko. Balio estimatu horretan sartuko dira, horrela aurreikusi gero, ezaugarrien taulako **22. atalean**, hurrenez hurren, adierazitako balizko kontratuzko goranzko aldaketak.

2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusiaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **6. atalean** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabili den metodoa.

### 5.- Kontratuaren prezioa

1.- Kontratuaren prezioa adjudikaziotik ateratzen dena izango da. Balio erantsiaren gaineko zerga partida independente gisa jaso beharko du. Kontratuaren prezioan aplikagarri diren edozein motatako tributuak, tasak eta kanonak sartuta daudela ulertuko da, eta baita klausula agiri honetan barneratzen diren betebeharrak betetzearen ondorioz adjudikaziodunak ordaintzeko sortzen diren gastu guztiak ere.

2.- Kontratistari sortuko zaizkion gastu guztiak egiturako gastu orokorren portzentajean sartutzat joko dira, baldin eta agirian eta kontratuari aplikagarriak zaizkion gainerako xedapenetan jasotako betebeharren ondorioz sortuz gero, eta lizitaziora ateratako proiektuan zuzeneko edo zeharkako kostu gisa azaltzen ez badira.

### 6.- Kreditua izatea

1.- Behar adinako kreditu egokia eta nahikoa dago, kontratua gauzatzeko kalkulatutako gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontu partiden kargura finantzatuko da eta ezaugarrien taulako **8. atalean** ezartzen diren urtealdiekin bat etorriz.

2.- Baldin eta, SPKL legearen 117.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz eta ezaugarrien taulan aurreikusitakoaren arabera, espedientea aldez aurretik izapidetzen bada, kontratua adjudikatu ahal izateko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarria bete beharko da, dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak bermatze aldera.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

**7.- Obrak gauzatzeko epea**

1.- Obrak osorik gauzatzeko gehienezko epea klausula agiri honen hasieran azaltzen den kontratuko ezaugarrien koadroko **9. atalean** ezarritakoa izango da, edo kontratuaren adjudikazioan zehazten dena, eta epe partzialak, hala badagokio, lan programa onartzea halakotzat jotzen direnak izango dira.

2.- Kontratuaren epea luzatu egin ahal izango da SPKL legearen 29. artikuluan eta 192. eta ondorengoetan eta urriaren 12ko 1098/2012 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko (aurrerantzean HAKLAO) 98. eta 100. artikuluetan ezarritako kasu eta baldintzetan. Nolanahi dela ere, luzapena espresuki erabaki beharko da.

3.- Epea zuinketa egiaztatzeko aktaren dataren hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen, baldin eta Administrazioak obraren hasiera onartzen badu.

4.- Kontratistak behar baino azkarrago egin ahal izango ditu lanak obrak kontratuan zehaztutako epeen barruan gauzatzeko, baina ezingo du hori egin desegokia dela uste izateko arrazoiak ikusten baditu Administrazioak. Aurrekoaren kalterik gabe, enpresa kontratistak ez du dagokion urtealdiari adjudikatutako prezioa baino zenbateko handiagoa jasotzeko eskubiderik izango, eta zenbateko hori gainditzen duten ziurtagiriak hurrengo urtealdia hasitakoan ordainduko dira.

**8.- Prezio berrikuspena**

1.- Berrikuspena beharrezkoa balitz, ezaugarrien taulako **12. atalean** adieraziko da, eta bertan jasoko da formula aplikagarria.

2.- Prezioak SPKL legean (103. artikuluan eta hurrengoetan) ezarritako moduan berrikusiko dira.

**9.- Kontratuaren publizitatea**

1.- Herri administrazioen kontratuak adjudikatzeko lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

2.- Kontratatzailearen profilean, kontratua adjudikatzeko deialdiari buruzko informazioa emango da, administrazio klausula partikularren agiriekin eta, hala badagokio, dokumentazio osagarriarekin batera.

3.- SPKLren 63. artikuluan jasotakoaren arabera kontratatzailearen profilean kontratu honi buruz argitaratuko den informazioa ezaugarrien taulako **2. atalean** adierazten den helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

**10.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan**

Organismo hauetan lortu ahal izango da honelako gaiei buruz indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua, eta gainerako zerga administrazioetan.
- Enpleguaren babesa, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta desgaituak gizartean eta lan munduan txertatzea: Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Emakunde organismo autonomoa.
- Hizkuntza berdintasuna: Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza.
- Ingurumenaren babesa: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia. IHOBE SA (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa).
- Datu pertsonalak babesa: Datuak Babesteko Euskal Agentzia.

**11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak**

1.- Kontratu honek administrazio izaera du, SPKLren 25. artikuluaren arabera. Aldeak klausula agiri honetan eta dena delako proiektuan jasotakoari espresuki lotuta gelditzen dira.

2.- Baldintza agirietan aurreikusten ez denerako, kontratua honako hauek arautuko dute: SPKL legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzeko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak (817/2009 Errege Dekretua); HAKLAO erregelamenduak; nahiz abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuz onartutako Estatuko obrak kontratatzeko Administrazio Klausula Partikularren Agiriak, aurrekoetan aurreikusten ez denerako. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko mailan (zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

3/2016 Legea) nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren mailan kontratazioa arautzeko ezarritako beste edozein xedapenek arautuko dute, baldin eta aplikagarri badira.

3.- Nolanahi ere, aurretik aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLren aurka ez doazen guztiak aplikatuko dira.

4.- Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

5.- Klausula agiri honen eta kontratuko beste dokumentuetako edozeinen artean desadostasunik izanez gero, klausula agiri hau nagusituko da.

6.- Kontratuko klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak eta gauza hitzartua betetzeko unean aplikagarriak diren jarraibide edo arauak, edo horien alderdiren bat, ez ezagutzeak ez du adjudikaziodun horiek guztiak betetzetik salbuesten.

7.- SPKLren 190. artikuluan aurreikusiarekin bat, kontratazio organoak du administrazio kontratua interpretatzeko eta hori betetzeko unean sortzen diren zalantzak erabakitzeko eskumena. Era berean, egindako kontratua aldebakarrez aldatu ahal izango du, eta hori suntsiaraztea erabaki ahal izango du, betiere SPKLk eta berau garatzeko xedapenek jasotzen dituzten mugen barnean eta baldintzetan eta aipatzen dituzten ondorioekin.

8.- Kontratua aplikatu edo interpretatzerakoan, egikaritzean, aldatzean, betetzean edo suntsiaraztean sor litezkeen auziak Foru Aldundiko organo eskudunek erabakiko dituzte, kontratistari entzun ondoren, SPKLk 191. artikuluan eta HAKLAOk 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Organo horiek hartzen dituzten erabakiak betearazi beharrekoak izango dira berehala.

9.- Interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz bestelakorik ezarri ez bada eta horien objektua diru zenbatekoak erreklamatzea, administrazio prerrogatibak baliatzea edo administrazio kontratu baten egikaritzeari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai bada, ebazpena emateko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero bere eskabidea administrazio isiltasunez ezetsitzat jo ahal izango du interesdunak, nahiz eta bere horretan iraungo duen ebazteko betebeharrak.

### 12.- Errekurtso araubidea

Kontratazio organoaren ebazpenen aurka, jarri ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, sektore publikoko araubide juridikoari dagokionez indarrean dagoen erregulazioak, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak aurreikusten dituzten errekurtso arruntak.

## II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

### 13.- Espediente mota eta lizitazio modua

1.- Kontratazio espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozedura eta tramitazioari jarraikiz garatuko da.

Aldaerak onartzen direnean, lizitatzaileek aukerak eskaini ahal izango dituzte, ezaugarrien taulako **11. atalean** ezarritako moduan eta, betiere, preskripzio tekniko partikularren agirian finkatutako baldintza, modalitate eta ezaugarriak jasoz, aipatu atal horretan bertan laburbiltzen baitira.

2.- Espedientearen presako tramitazioak ez du berekin ekarriko lizitazio, adjudikazio eta formalizaziorako ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako erregelekin bat.

### 14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko inolako galarazpenek eragiten ez badie eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute edo SPKLk hala eskatzen duenean, behar bezala sailkatuak badaude.

Araudi aplikagarriak ezartzen duela-eta adjudikatzaileari eskatzen zaionean bere antolakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa sistemari edota beste batzuei buruzko zenbait baldintza betetzea adjudikazio prozeduran parte hartu ahal izateko, alderdi horiek prozeduran aurkezten denean egiaztatu beharko ditu.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

2.- Aurreko atalen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruz aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua burutzen den unean mantendu egin beharko dira.

3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren objektu diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, objektua edo jarduera esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

5.- Era berean, Administrazioak kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako eratzen diren enpresa elkarteekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa kontratua adjudikatzen zaion arte enpresa elkartea eskritura publiko bitartez eratuta egotea.

Aldi baterako enpresa elkarte baten osaera aldatzen denean kontratua formalizatu aurretik eta ondoren, SPKLren 69. artikuluaren 8. apartatuan eta ondorengoetan jasotakoari jarraituko zaio. Horretarako, zer zirkunstantzia gertatu den jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari.

6.- Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparrua sinatu duten estatuetako enpresei eta Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.

7.- SPKLren 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, klausula agiri honen objektu den kontratua ezingo zaie adjudikatu lizitazioko obrak zaindu, gainbegiratu, kontrolatu eta zuzentzeko helburua duten zerbitzu kontratuetako adjudikaziodun diren enpresa berberei, ezta horiekin lotura duten enpresei ere. Elkarren artean lotura duten enpresatzat hartuko dira Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.

**15.- Proposamenak aurkeztea**

1.- Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira, ezaugarrien taulako **33. atalean** jarritako epean, betiere kontratatzailearen profilean lizitazio iragarkia argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio klausula agiri honetako **I. eranskinean** jasotakoari.

3.- Dokumentuak izendatzeko unean kontuan hartuko dira klausula agiri honetako **18. eta 19. klausuletan** adierazitako atalak, horietan adierazten baita BAT eta BI zenbakiko artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentu edukia.

4.- Eskaintzak isil gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

**16.- Lizitatzaileei informazioa ematea**

1.- SPKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarri edo gehigarria eman beharra dagoenean, administrazio kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, beranduen eskaintzak aurkezteko finkatutako mugako data baino sei egun natural lehenago, betiere informazio eskaera mugako data hura baino, gutxienez, hamabi egun natural lehenago aurkezten bada. Eskaera hori lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **1. atalean** aurreikusten den helbide elektronikora zuzenduko da.

2.- Eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.

**17.- Proposamenen edukia**

1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko fitxategi batean, haren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLAOren 80.1 artikulua).

**18.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoa: "BALIO IRIZPIDEEN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" (BAT zenbakiko artxiboa dagoenean bakarrik)**

1.- Ezaugarrien taulako **17. atalean** aurretik eta balio irizpide baten bitartez baloratu beharreko adjudikazio irizpideak jaso baldin badira, lizitatzaileak BAT zenbakiko artxibo elektronikoa aurkeztu beharko du, "BALIO IRIZPIDE BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenarekin, horretan sartuz hartan eskatutako dokumentazioa.

2.- Artxibo elektroniko honetan ez da inolaz ere sartuko BI zenbakiko artxibo elektronikoan joan behar duen informaziorik.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

3.- Orobat, lizitatzaileak datuak aurkeztu beharko ditu, jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko, I. eranskinaren gehigarriko ereduaren arabera, baita beste edozein agiri jasotzeko ere, proiektuan espresuki adierazten direnak, eta ahalbidetzen dutenak egiaztatzea eskaintzak betetzen dituela eskatu arren baloratuko ez diren zehaztapen teknikoak. Dokumentuak BAT zenbakiko artxibo elektronikoan sartuko dira, baldin eta artxibo elektroniko hori aurkeztea derrigorrezkoa bada; derrigorrez aurkeztu beharrik ez badago, ordea, BI zenbakiko artxibo elektronikoan sartuko dira.

**19.- BI zenbakiko artxibo elektronikoa: "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" (BAT zenbakiko artxiborik ez dagoenean, artxibo BAKARRA izango da)**

1.- "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko bestelako dokumentuak jaso beharko dira.

2.- Proposamenak egokitu egingo zaizkio **IV. eranskinean** jasotzen den ereduari, eta ez da onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, akatsak edo ezabapenak dituen proposamenik. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, jasanarazi behar den kasuan.

Bai eskaintza ekonomikoa bai artxibo elektroniko horietan jasotzen den bestelako dokumentazioa ezaugarrien taulako **17. atalean** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko dira.

Gainera, **IV. eranskinean** honako hauek sartuta daude:

a) **Erantzukizunpeko adierazpena,** SPKLren 159.4.c artikuluan jasotako edukia izango duena. Enpresa atzerrikoa bada, adierazpenean foru espainiarrari men egingo zaiola jasoko da.

b) **Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio.** Enpresa bi edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta zertzeladak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, adjudikaziodun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta HAKLAOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. klausula agiri honetako **II. eranskinean** jasotzen da aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

c) **Espresuki erantzukizunpean adieraztea** bere eskaintza prestatzerakoan kontuan izan dituela fiskalitate, ingurumenaren babes, enpleguaren babes, genero berdintasun, lan baldintza, laneko arriskuen prebentzioa eta desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratze eta laneratze arloan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak, desgaitasunen bat duten pertsona kopuru edo portzentaje jakin bat kontratatzeko eta ingurumena babesteko betebeharrak.

d) **Kaudimenari buruzko baldintzak zehazteko adierazpena** (Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak 76. artikuluaren arabera).

e) **Erantzukizunpeko adierazpena,** non enpresa lizitatzaileek zehaztu beharko duten beraiei kontratua adjudikatuz gero kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei zer hitzarmen kolektibo aplikatuko dien. Bertan adierazi behar dute ahalik eta informazio gehien aurkeztuko dutela, kontratua adjudikatu ondoren langile horiei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz.

f) **Baimena,** herri administrazio kontratatzaileari hau egiaztatzen duen informazioa lagatzeko: ordezkatutako enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko bere zerga betebeharrak betetzen dituela, eta Segurtasun Sozialekiko betebeharrak.

g) **Idatzia** (atzerriko enpresak direnean) **jurisdikzio eta auzitegi espainiarren mende jartzeari buruz**, atzerriko jurisdikzio foru aplikagarriari uko eginda.

h) **Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko berariazko adierazpena,** bera parte den enpresa taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak hartzen dituena bera, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Inongo enpresa taldetakoa ez bada, adierazpenak horixe adierazi beharko du.

i) **Erantzukizunpeko adierazpena,** honako hau dioena: adjudikazioduna izanez gero, V. eranskinaren arabera, proposamenean konprometitutako adjudikazio irizpideen inpaktua eta aplikatutako izaera sozialeko exekuzio-baldintza bereziak ebaluatzera behartzen da.

j) **Gipuzkoako Foru Administrazioaren kontratazio publikoari aplikatzeko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua betetzeari buruzko adierazpena.**



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

k) **Lizitatzaileen izaera konfidentzialeko dokumentu eta datuei buruzko adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi beharko dute aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak. Zirkunstantzia hori, gainera, argi adierazi beharko da (gain inprimatua, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzial jo daitezke, horiek hirugarren pertsona edo entitate batzuei zabaltzea lizitatzailearen interes komertzial zilegien kontrakoa izan daitekeenean edo enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean. Adierazpen hau egin ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da.

3.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz.

Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko. Epe hori ezingo da bost egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatutako epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

4.- Eskaintzaren batek lizitazio oinarriaren aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatzaileak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko.

5.- Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake, SPKLren 142. artikuluan aldaeren onargarritasunari buruz jasotakoa eragotzi gabe. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekiko aldi baterako elkartea eginez inolako proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan badago ere. Printzipio hau urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsi egingo dira.

6.- Proposamena enpresa elkarte batek egina denean, elkarteko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez.

7.- Ezaugarrien taulako 11. atalean aldaerak aurkeztea baimentzen denean, erreferentzia gisa oinarria hartzen duen eskaintza ekonomikoaz gain eskaintza ekonomiko bat jaso ahal izango du artxibo honek aldaera bakoitzeko. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa, era berean, klausula agiri honetako IV. eranskinean ageri den ereduaren arabera formulatuko da, eta atal horretan adierazten diren kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

### 20.- Aldaerak onartzea

1.- Aldaerak onartzen diren kasuan, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak kontratuaren objektura begira eskaintzeari egoki irizten dion adina aukera jaso ahal izango du, preskripzio tekniko partikularren agirian finkatutako beharkizun, modalitate eta ezaugarri teknikoekin, ezaugarrien taulako 11. atalean laburtzen baitira. Aldaerak ezaugarrien taulako atal horretan bertan ezartzen den moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioko oinarrizko aurrekontua gainditu.

2.- Nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da enpresa lizitatzaileentzat behin betiko onartutako proiektuari bakarrik eta literalki dagokion proposamen bat aurkeztea. Betiere, prestazioa betetzeko epea eta prezioa, biak, klausula agiri honen hasierako ezaugarrien taulan jasotakoaren berdinak edo txikiagoak izan behar dira, eta zehatz-mehatz bat etorriko dira lizitatzaileak aurkezten duen lan egitarauan adierazitakoekin.

### 21.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

1.- Proposamenak aurkeztuz gero, ulertuko da enpresa lizitatzaileak goitik behera onartzen dituela klausula agiri honetako eta preskripzio teknikoen agiriko klausulak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, bai eta kontratazio mahaia eta organoa baimentzen dituela Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatu ditzaten.

Baldintza agiriak ez onartzeak eskaintza atzera botatzea ekarriko du, ezinbestean.

2.- Lizitatzaileek ezingo dute beren proposamena kendu hamabost egun naturaletan, proposamenak irekitzen direnetik aurrera, adjudikaziodună aukeratzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua adjudikatzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu direnean, SPKLren 158.4 artikuluan aurreikusiarekin. Epe hori hamabost egun baliodunez luzatuko da, baxuegi iritzitako eskaintzei dagokienez SPKLren 149. artikuluak aipatzen dituen izapideak bete behar direnean.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

3.- Proposamen bat behar ez bezala erretiratzen bada, lizitatzaileak ezingo du Administrazio Publikoekin kontratatu, SPKLren 71.2 artikuluan xedatuarekin bat.

**22.- Kontratazio mahaia**

1.- Kontratazio mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskumenduna, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta, gainera, mahaiaren osaketa eta eginkizunak garatzen dituen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan jasotakoari jarraikiz.

2.- Mahaiaren osaketa ezaugarrien taulako 32. atalean jasota dago. Hori kontratatzailearen profilaren bitartez argitaratuko da lizitazioaren iragarkiarekin edo, bestela, beti mahaia bera eratu aurretik aipatutako profileko iragarki espezifiko batekin.

3.- Kontratazio mahaiko kideen kasuan, kargu hutsen, gaixotasunen edo arrazoi justifikaturen batengatiko absentziaren kasuan ondoko ordezkapen araubideari segituko zaio:

- Mahaiburua: titularra bokalek ordezkatuko dute, klausula agiri honetako ezaugarrien taulan edo, bestela, kontratatzailearen profilean adierazten den ordena berari jarraikiz.
- Bokalak: bokalak, oro har, titularrak atxikita dauden zerbitzu edo kudeaketa unitateei atxikitako funtzionarioek ordezkatuko dituzte edo, bestela, bokalak berak mendeko diren zuzendaritzako beste zerbitzu batzuei atxikitakoek, eta mahaiburu kargua duenak izendatuko ditu. Ordezkapena deskribatutako moduan egin ezin bada, departamentuko kudeaketa zerbitzu ezberdinetara atxikitako funtzionarioek ordezkatuko dituzte bokalak, Mahaiburuko titularrak izendatuta.
- Kontu-hartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuari atxikitako kidearen kasuan, zerbitzu horretako funtzionario batek ordezkatuko du.
- Idazkaria: kontratua kudeatzen duen departamentuari atxikitako eta mahaiburu kargua duenak izendatutako funtzionario batek ordezkatuko du.

**23.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea**

**23.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (bakarrik BAT zenbakiko artxibo elektronikorik badagoenean)**

1.- Haren aurkezpena nahitaezkoa denean, kontratazio mahaiak ireki egingo ditu, eta kontratazio organoko zerbitzu teknikoek baloratuko dituzte proposamenak, horien edukia ezaugarrien taulako 17. atalean adierazitako irizpideen arabera ebaluatzearren.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan aipatutako balorazioa BI zenbakiko artxibo elektronikoa irekitzeko egintza publikoaren aurretik egin beharko da.

2.- Lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BAT zenbakiko artxibo elektronikoetan formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko informazioa (BI zenbakiko artxibo elektronikoa) sartzen dutenak.

**23.2.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea**

1.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak ekitaldi publikoan irekiko dira eta, kontratatzailearen profileko deialdian horrela azaltzen bada, zuzenean jarraitu ahal izango da ekitaldia, kasuan kasuko deialdian adierazten den estekaren bitartez.

2.- Balio irizpide bitartez ebaluatzeko irizpiderik baden kasuan, ebaluazio horren emaitza ekitaldi honetan adieraziko da.

3.- Ondoren, kontratazio mahaiak ireki egingo ditu onartutako lizitatzaileek aurkeztutako BI zenbakiko artxibo elektronikoak, "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izenekoak, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu.

4.- Artxibo elektroniko horietan jasotzen den dokumentazioa ezaugarrien taulako 17. atalean adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko da.

5.- Edonola ere, irizpide horien ebaluazioa BAT zenbakiko artxibo elektronikoetan jasotako dokumentazioaren balorazioaren ondotikoa izango da, beti.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

**23.3.- Kontratazio mahaiaren aktak**

Aurreko atalen arabera jardundako guztia adierazita utziko da dagozkion aktetan, horiek prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak jasoko baitituzte.

**24.- Balio irizpideen bidez kalifikatu daitezkeen adjudikazio irizpideen balorazio txostena eta kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea, eta lizitatzaile ukituei jakinaraztea.**

1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo bazterketa kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediarekin bat argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasu bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak zuzenduko zaizkie lizitatzaile ukituei.

2.- Lizitatzaile bat kanpoan uzten bada, egintza hori ekitaldi publikoan bertan jakinaraziko zaio hari, enpresaren ordezkaria ekitaldian bertan dagoela-eta hori posible baldin bada, edo, bestela, jarraitu egingo dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako bestelako prozedurak.

3.- Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta hamar egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

**25.- Adjudikazio irizpideak**

1.- Kontratua adjudikatzeko irizpideak eta haztapena, bai oinarrizko eskaintzari eta bai aldaerei aplikatuko zaizkienak, lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **17. atalean** ezarritakoak izango dira.

2.- Ezaugarrien taulako **17. atalean** adierazten diren ezaugarri formalak (testu idatzien paperaren tamaina, marjinak, letra mota eta lerroartekoa –kontuan eduki gabe grafikoak, argazkiak, diagramak...–) betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei eskaintza formalki zuzentzea eskatuko zaie, haren eduki materiala aldatzeke baina. Eduki hori aldatzeak berehala prozeduratik baztertzea ekarriko du.

Errekerimendua egin ondoren formalitatea bete gabe jarraitzen badu, proposamenak ez dira baloratuko kasuan kasuko adjudikazio irizpideari dagokionez, baina hura ez betetzeak ez du, inola ere, proposamena adjudikazio prozeduratik kanpo utziko.

3.- Ez dira, inola ere, adjudikazio prozeduratik kanpo utziko honelako proposamenak: aipatutako **17. atalean** adjudikazio irizpideei buruzko atal bakoitzerako ezarritako gehieneko luze-laburra gainditzen dutenak (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe). Gehieneko luze-laburra gainditzuz gero, edukia baloratuko da onartutako gehieneko orri kopurura arte.

4.- Enpresa lizitatzaileren batek ez badu aurkezten adjudikazio irizpideei buruzko dokumentazioa, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inola ere, adjudikazio prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.

**26.- Eskaintzak baloratzea**

1.- Bere eginkizunetan aritzeko, mahaiak beharrezko iritzitako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.

2.- Eskatzen diren preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak kanpoan utziko ditu kontratazio mahaiak.

3.- SPKL legearen 147.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratuaren adjudikazio irizpidea aplikatu ondoren eskaintza ugariren artean berdinketa ematen bada, berdinketa hori hurrengo lerroaldean adierazitako irizpide sozialak, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari dagozkionak, aplikatuko ebatziko da.

4.- Kontratuen adjudikazioan lehentasuna izango dute beren lantaldean desgaitasuna duten langileen ehunekoa araudiak ezartzen duenaren gorakoa duten enpresek, betiere, proposamen horiek onenen berdinak badira adjudikazioaren oinarri modura baliagarri diren irizpideen ikuspegitik. Eskaintzarik onena egiten parean gelditu direnetatik lizitatzaile batek baino gehiagok egiaztatzen badu araudiak ezartzen duena baino desgaitu baino langile gehiagorekin lan harremana duela, orduan enpresako langile finkoen artean ezgaituen portzentaje handiena duenari emango zaio lehentasuna kontratuaren adjudikazioan. Hala ere berdinketa egoeran jarraitzen badute, prezio baxuena eskaini duen proposamena aukeratuko da; prezioa ere berdina bada, adjudikazioa zozketaz erabakiko da.

Irizpide horiek aplikatze aldera lizitatzaileek egiaztatu egin beharko dituzte, hala badagokio, dagozkion lan kontratuekin eta Gizarte Segurantzarako kotizazioa erakusteko dokumentuekin eta aurrez aipatutako irizpide sozialak egiaztatzeko zuzenbidez onartutako beste edozein dokumenturekin.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

**27.- Eskaintzak argitzea**

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak eskaintza aurkeztuei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiete lizitatzaileei, edo eskaintzen erredakzioko akats material agerikoak zuzentzeko esan, betiere tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuta eta eskaintzen baldintzak aldatzeko inolako aukerarik eman gabe. Jardundako guztia dokumentu bidez adierazita utzi beharko da espedientean.

**28.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak**

1.- Hasiera batean, modu ezohikoan baxu modura hartuko dira onartutako eskaintzetako prezio guztien batez besteko aritmetikoaren % 10 baino gehiagoan baxuagoak diren eskaintzak.

2.- Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza baxuegia dela uste izanez gero, kontratazio mahaiak lizitatzaileari eskatuko dio, behin eskaintzak eta adjudikazio proposamena ebaluatu eta sailkatu ondoren, eskaintza baxuegia izatea eragin duten proposameneko parametroak arrazoituta eta zehatz jakinarazteko, justifikatzeko eta xehakatzeko, betiere jakinarazpena bidali denetik bost egun balioduneko epean. SPKLren 149. artikuluko 4.etik 6.era bitarteko apartatuetan aurreikusitako prozedura tramitatuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio organoari.

3.- Edozein kasutan, kontratazio organoak eskaintzak ukatu egingo ditu, baldin eta egiaztatzen badu ezohiko moduan baxuak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako eta ingurumen, gizarte edo lan arloan, maila nazionalean nahiz nazioartean, aplikagarri diren betebeharrak betetzen ez dituztelako, indarreko hitzarmen kolektibo sektorialak ez betetzea barne, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

4.- Edozein modutan, justifikazioak lizitatzaileak proposatutako prezio edo kostuen maila baxua behar bezala ez duela azaltzen ulertuko da hura osagabea denean edo ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomiko batetik desegokiak diren hipotesi edo jardunetan oinarritzen denean.

**29.- Prozedurako ondorengotza**

1.- Baldin eta, prozedura izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu baino lehenago, enpresaren ondarea edo jardueraren adar bat bat egin, zatikatu edo eskualdatzeko eragiketa bat gertatzen bada, sozietate xurgatzailea, bat-egitetik sortu dena, zatiketaren onuradun izan dena edo enpresaren ondarea edo dena delako jarduera adarra eskuratu duena izango da prozeduran lehengo enpresa lizitatzaile edo hautagai haren ondorengoa, betiere horretarako gaitasuna badu, kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimen eta sailkapena egiaztatzen badu, adjudikazio prozeduran parte hartu ahal izateari begira administrazio klausula partikularren agirian eskatzen diren baldintzak beteta.

2.- Aurreko ataleko eragiketak enpresa elkarteak egiaztatzen baditu SPKLren 69. artikuluaren esanak jarraituko dira.

**30.- Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio prozeduran Administrazioak atzera egitea**

1.- Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko edo SPKLren 152. artikuluko baldintzetan adjudikazio prozeduran atzera egiteko erabakia bakar-bakarrik formalizazioaren aurretik hartu ahal izango du kontratazio organoak. Erabakia lizitatzaileei jakinarazi beharko die.

2.- Kasu bietan, hautagai egokiei edo lizitatzaileei ordaina eman beharko zaie, klausula agiri honetako ezaugarrien taulako 25. atalak kasuan-kasuan zehazten duen kopurukoa.

**31.- Adjudikazioa**

**31.1.- Eskaintzak sailkatzea, kalitate-prezio erlaziorik oneneko eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko beharkizunen egiaztagiriak aurkeztea eta adjudikazio proposamena egitea.**

1.- Behin ekitaldi publikoa egin ondoren, eta BI zenbakiko artxiboa irekitzeko saioan bertan, aktarekin batera dagokion balorazioa eta kontratua adjudikatzeko proposamena bidaliko dizkio kontratazio mahaiak kontratazio organoari, aurretik, hala badagokio, klausula agiriko baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuta. Proposamenean, ezaugarrien taulako 17. atalean jasotako irizpideen aplikazioz bakoitzari emandako puntuazioaren arabera beheranzko hurrenkeraz antolatuta agertuko dira eskaintzak, kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuta.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta, beraz, hark ez du eskubiderik eskuratuko Administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatzen ez den arte.

Kontuan hartzeko irizpide bakarra prezioa denean, ulertuko da eskaintzarik onena preziorik txikiena jasotzen duena dela.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

2.- Saio berean, Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean egiaztatuko da enpresa behar bezala inskribatuta dagoela SPKLren 159.4.f).3 artikuluan jasotakoari jarraituz.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioan puntuaziorik onena lortu duen enpresak frogatu behar dituen beharkizunetako bat jasota agertzen ez denean, kontratazio mahaiak eskatuko dio zazpi egun balioduneko epean, komunikazioa bidaltzen denetik aurrera, dagokion dokumentazioa aurkez dezala.

3.- Era berean, eta puntuaziorik onena atera duen enpresari eskatuko zaio, komunikazio elektronikoaren bidez, zazpi egun balioduneko epean, komunikazioa bidaltzen zaionetik aurrera, honako hauek egin ditzala:

a) Aurkeztu beharko du **giza baliabideak eta bitarteko materialak egiaz badituela egiaztatzen duen dokumentazioa**, ezaugarri taulako **14. atalean** jasotako profilak eta zehaztapenak betez.

b) **Kaudimena kanpo bitartekoak erabiliz egiaztatzeko** (SPKLren 75. artikulua), **frogatu egin beharko da** egiaz badirela kontratua egikaritzeko pertsona eta material aldetiko bitartekoak, beste entitate horiek idatziz hartutako konpromisoa aurkeztu beharko baita.

   Lizitatzaileak, kontratua betetzeko, bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berak erabiliko ditu. Aurreikusi ezindako arrazoiak sortu direla eta horiek ordezkatu behar izanez gero, pareko kaudimena egiazta dezaketen beste bitarteko batzuk baliatuko ditu, betiere Administrazioak baimenduta.

c) **Berdintasun plan bat baduela justifikatzeko dokumentazioa** aurkeztu beharko du, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako denak, 45. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz, 250 langiletik gorako enpresa denean.

d) **Langile desgaituen kopuruari buruzko frogagiria aurkeztu beharko du**. 50 langile edo gehiagoko enpresek dokumentazioa aurkeztu beharko dute, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostu kuota edo, bestela, osagarri gisa edo subsidiarioki, horren beharrean har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatzeko, hain zuzen ere 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, zein horren garapenerako araudiak, aurreikusten dutenarekin bat.

e) **Ingurumen kudeaketako arauak eta kalitate bermearen ingurukoak betetzeari buruzko ziurtagiriak** aurkeztu behar ditu. Ezaugarri taulako **13. atalean** hala jasota badago, eta han adierazitakoari jarraituz.

f) **Lizitatzaileak azpikontratatzeko asmoa duen kontratu zatiari buruzko dokumentazioa** aurkeztu behar du. Ezaugarrien taulako **15. atalak** eskatzen duenean, puntuazio hoberena atera duen enpresak adierazi egin beharko du kontratuaren zer zati azpikontratatzea aurreikusi duen, azpikontratazioaren diru zenbatekoa ehuneko gisa adierazita, lan hori egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta) zehaztuta (SPKLren 215. artikulua).

g) Hala badagokio, bidezkoa den **behin betiko bermea** honela gordailatu ahal izango da:

   - Banku kontuaren nazioarteko zenbakia duen ES71 2095 0611 09 1062462774 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.
   - Kontratazio organoaren aurrean, idatzoharra egindako baloreen ibilgetze ziurtagiriak, abalak edo kauzio aseguruen ziurtagiriak direnean (ikusi eredua **III. eranskinean**).

4.- Aurreko 2. eta 3. ataletako dokumentazioa ezarritako epearen barnean behar bezala aurkezten ez bada, ulertuko da lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Horrenbestez, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, eskaintzen sailkapenean hurrengo den lizitatzaileari dokumentazio berbera eskatuko zaio (SPKLren 150.2 artikulua).

5.- Klausula honetan adierazia emandako epearen barnean betetzen ez duen lizitatzaileari, dolo, erru edo zabarkeriaz jardun baldin badu, kontratatzeko galarazpena ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusiaren arabera.

### 31.2. - Behin betiko bermea

1.- SPKLren 145. artikuluaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko berme bat eratu beharko du, eta kontratazio organoaren eskura jarri. Bermea lizitatzaileak eskainitako amaierako prezioaren % 5 izango da, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita. Berme horren eraketa zazpi egun balioduneko epean egiaztatu beharko da **31.1 klausulan 3. atalean** aipatutako jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik aurrera.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

2- Ezaugarrien taulako 16. atalean agertzen den behin betiko bermea SPKL legearen 108. artikuluan eta HAKLAO erregelamenduaren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako edozein modutan eratu ahalko da. Beharkizun hori adjudikaziodunaren erruz betetzen ez bada, Administrazioak ez dio adjudikatuko.

3.- Ezaugarrien taulako aipatu atalean hala aurreikusten bada, prezioa atxikitzearen bitartez eratu ahal izango da.

Prezioa atxikitzearen bitartez eratzen bada, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, aldez aurretik berariazko baimena izanik, hartako zenbatekoa lehenengo fakturatik eta hurrengoetatik kenduz, zenbateko osora iritsi arte.

4.- Kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak bermearen bitartez gauzatzen badira, kontratistak berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa dagokion kopuruz handitu, haiek gauzatzen direnetik hamabost egun naturaleko epean; horrela ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

5.- Kontratuan izandako aldaketaren bat dela eta kontratuaren prezioa ere aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia lizitatzaileari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean, hain zuzen prezio berriarekiko proportzioa mantendu dezan.

6.- Nolanahi ere, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan aipatutako kontzeptuez erantzuteko erabiliko da. Kontzeptu horien barruan sartuta dago kontratistak ez betetzea kontratuari lotutako prestazioak oker betetzearen ondorioz hirugarrengoei eraginkako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, SPKLren 196. artikuluan jasota dagoena.

7.- Berme osagarria SPKL legearen 107.2. artikuluan jasotakoaren arabera ezarriko da eta, hala badagokio, ezaugarrien taulako 16. atalean xedatutakoari jarraituko zaio.

### 31.3.- Adjudikazioa

1.- Kontratazio organoak kontratua adjudikatu beharko du 31.1 klausulak aipatzen duen dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan.

Ezingo da utzi adjudikatu gabe lizitazio bat, baldin eta klausula agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

2.- Adjudikazioaren ebazpena arrazoitua izan beharko da eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuta egon beharko da hamabost eguneko epean.

3.- Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jasoko da adjudikazio ebazpenean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

4.- Aurreko 2. atalak aipatzen dituen jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa izango dute, eta bereziki SPKLren 151.2 artikuluak galdatua, hain zuzen adjudikazio prozeduran interesa duten pertsonek behar beste oinarritutako errekurtsoak jarri ahal izan ditzaten adjudikazio erabakiaren kontra.

5.- Adjudikazioaren motibazioan SPKLren 155.3 artikuluan jasotako isilpekotasun salbuespena aplikatu beharko da.

6.- Edonola ere, kontratua zer epetan formalizatu behar den adieraziko da bai jakinarazpenean bai kontratatzailearen profilean, SPKLren 153. artikuluak xedatzen duenarekin bat.

7.- Jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko agerraldi bitartez egingo da.

### 32.- Kontratua formalizatzea

1.- Kontratua administrazio dokumentuan formalizatu beharko da. Dokumentu hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie estu-estu, eta behar besteko titulua izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango ditu eskritura publikoak egiteak sortzen dituen gastuak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezingo da inola ere sartu adjudikazio irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik.

2.- Kontratua formalizatzen denean burutuko da eta, horrenbestez, ezin izango da inolaz ere kontratua egikaritzen hasi, formalizatu bitartean.

3.- Kontratua sinatu aurretik, adjudikazioduna ordezkatzen duen pertsonak honakoak aurkeztu beharko dizkio kontratazio organoari:

a) Bere identitatea eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten dokumentuak.
b) Adjudikazioduna aldi baterako enpresa elkartea baldin bada, elkartearen eraketaren eskritura publikoa, elkarteari eman zaion IFK eta ahal nahikoz hornitutako ordezkaria izango den pertsonaren izendapena.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

4.- Kontratuaren formalizaziorako gehienezko epea bost egun baliodunekoa izango da, adjudikaziodunak adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

5.- Kontratua sinatzen den ekitaldi berean eta hura sinatuta, enpresa adjudikaziodunak hauek sinatuko ditu: Memoria, obra unitateetako parte diren oinarrizko edo funtsezko materialen deskribapenari dagokion guztian, planoak, preskripzio teknikoen agiriak eta proiektuko aurrekontuko prezioen koadroak, eta baita administrazio klausulen agiri hau ere. Dokumentu horiek guztiek kontratuzko izaera dute. Horrela, horien berri duela eta bere adostasuna jasota geratuko da.

Kontratuaren edukian espresuki jaso beharko dira adjudikaziodunak proposamen teknikoan, eta alderdi sozialen eta ingurumenekoen gaineko adjudikazio irizpidetzat baloratutako alderdiei dagokienez, bere gain hartutako obligazioak, hain zuzen ere urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauak, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoak, 11.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat.

6.- Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barnean, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpoan utzita, zehapen kontzeptuan; kopuru hori jasotzeko, behin betiko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan. Horretaz gain, kontratatzeko galarazpena ere ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.

7.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozteko modukoak badira, berandutzeak eragindako kalteen ordaina emango zaio kontratistari.

8.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## III. KAPITULUA - KONTRATUA EGIKARITZEA

### 33.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratazio organoak, kontratuaren pertsona arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua egikaritzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Era berean, kontratuaren arduradun izango den pertsonak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesional edo jakintza espezifikoen arabera. Laguntzaile horiek kontratua adjudikatzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Kontratuaren arduradunaren eskumenak Zuzendari Fakultatiboak burutuko ditu, SPKL legearen 237.etik 246.era bitarteko artikuluetan xedatuaren arabera.

3.- Bere eginkizunak garatu ahal izateko, arduradunak eta laguntzaileak libre sartu ahal izango dira kontratuaren objektu den prestazioa garatzen den lekuetara, eta egoki iritzitako ikuskapen guztiak egin ahal izango dituzte, segurtasun eta osasun koordinatzaile izendatzen den pertsonak lagunduta, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak kontratuaren objektu diren prestazioak garatzeko erabakigarriak badira. Kasu horietatik at, kontratuaren arduradunak lekuetara sartzeko beharra justifikatu beharko du, espresuki eta espediente administratiboan zehaztuta; espediente hori kontratazio organoak berretsi beharko du aurretik.

Era berean, egoki deritzoten informazio eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren objektua behar bezala betetzeko beharrezko bilerak sustatu eta deitu, hala badagokio, betetze horretako edozein gorabehera bideratu ahal izatearren.

4.- Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu jarraibideak.

Zehazki, honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Kontratua egikaritzeko lanak kontratuan bertan jasotako baldintzetan eta aurreikusitako epean gauzatzen ari direla egiaztatzea. Eginkizun horrek ahalbidetuko du beharrezko ekintzak egitea, jarduera horrek kontratuaren kalitate beharkizunak eta klausula sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak betetzen ote dituen egiaztatzearren.

b) Kontratazio organoari aditzera ematea edozein motatako ez-betetzeak eta, hala dagokionean, zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko, kontratua behar bezala gauzatzea bermatzeko bestelako neurriren bat hartzeko edo Administrazioari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragiten dituen kalteengatiko ordaina emateko prozedura abia dadin proposatzea.

c) Kontratuan beharrezko den aldaketa oro gomendatzea, esaterako zehaztapen, jarraibide edo jardun eraginkorragoak eman ditzaketen beste baldintza batzuen kasuan.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

d) Kontratuari atxikitako pertsona zein material aldetiko aldaketak baimentzea, kontratuaren aldaketarik ez dakarten kasuetan.

e) Epea luzatzeko premia eta egokitasunaren berri ematea eta arrazoitzea.

f) Enpresa kontratistak azpikontratistekiko dituen ordainketa obligazioak betetzen dituela egiaztatzea.

5.- Kontratua egikaritu bitartean aldatzen badira kontratuaren arduraduna edo laguntzaileak, enpresa kontratistari horren berri emango zaio, idatziz, kontratatzailearen profilean argitaratzearekin batera.

**34.- Kontratistaren ondorengotza**

1.- Enpresak edo enpresen jarduera adarrak batzen, zatitzen, jartzen edo eskualdatzen direnean, kontratuak jarraitu egingo du kontratua adjudikatzen zaion entitatearekin, hori subrogatu egingo baita kontratuari dagozkion eskubide eta obligazioetan, betiere SPKLren 98. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa elkartea denean, SPKLren 69.9 artikuluan jasotakoa beteko da.

2.- Kontratistaren betebeharra da Administrazioari era frogagarrian jakinaraztea nortasun juridikoari eragiten dion aldaketa oro. Horrelakoetan eten egingo da kasuan kasuko fakturak ordaintzeko legez aurreikusten diren epeen konputua, harik eta aldaketak egiaztatzen diren arte.

3. Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen entitateak beharrezkoak diren kaudimen eta gaitasun baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela joko da ondorio guztietarako.

**35.- Kontratua besteri lagatzea**

1.- Kontratuari dagozkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa adjudikaziodunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izan diezazkion, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 egikaritua izatea.

c) Enpresa lagapen hartzaileak kontratuak egiteko gaitasuna eta kontratuaren egikaritze fasearen arabera galda daitekeen kaudimena izatea. Gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta horri ez dio eragin behar kontratatzeko inolako debekuk.

d) Enpresa adjudikaziodunaren eta enpresa lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bitartez formalizatzea.

3.- Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

**36.- Enpresa kontratistaren betetze baldintzak eta betebeharrak**

**36.1.- Baldintza orokorrak**

1.- Kontratua adjudikatzen zaion enpresak edo aldi baterako enpresa elkarteak kontratuan aurreikusitako epeetan gauzatu eta eman beharko dizkio Foru Aldundiari proiektatutako lanak.

2.- Obrak onartutako proiektua eta baldintza agiriak, aplikatzekoa den araudi orokorra eta, edozein kasutan, kontratatutako lanen izaeragatik berezkoak diren arau teknikoan zehaztasun osoz betez gauzatu beharko dira eta, kontratua teknikoki

interpretatuz, obrako Zuzendaritzak enpresa kontratistari emango lizkiokeen argibideen arabera. Jarraibideak ahoz ematen direnean, alderdiak lotuko badituzte, idatziz berretsi behar dira ahalik eta azkarren.

3.- Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da, SPKL legearen 239. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

4.- Enpresa kontratista izango da Proiektuan aurreikusitako irtenbideak behar bezala gauzatu eta gauzatzearen arduraduna obrak modu asebetegarrian bete artean.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

5.- Obrak garatzen diren bitartean eta berme epea betetzen den arte, enpresa kontratista da eraikuntzan ohartarazi daitezkeen akatsen erantzulea.

Administrazioak izendatutako Zuzendaritza fakultatiboaren iritziz obrako zatiren bat akatsekin gauzatu balitz, enpresa kontratista berregin egin beharko du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe, nahiz eta akatsak harreraren ondotik hauteman.

Akatsa duten edo kontratuko baldintzak zorrotz betetzen ez dituzten obra unitateak, hala ere onargarriak direla uste badu obra zuzendariak, onartzeko proposa diezaioke Administrazioari, prezioetan beherapena eginda. Kasu horretan, Administrazioak ezarritako prezio beherapena onartzera behartuta dago kontratista, edo, bestela, nahiago badu, gaizki dauden obra unitateak desegin eta berriz eraiki beharko ditu, bere kontura eta kontratuko baldintzen arabera.

6.- Kontratistak aseguru kontratu bat eduki beharko du kontratua burutzeko epe osoan (luzapenak barne) eta bermealdian (gehikuntzak barne), kontratua burutzetik hirugarrenei edo obrari eragin dakizkiekeen kalteen erantzukizuna estaltzeko; aseguruak agiri honen **43.** eta **44. klausuletan** aipatzen diren gutxieneko estaldurak izango ditu, besteak beste berariaz adieraziz zein diren aseguratuak, gutxieneko estaldurak, bermatutako zenbatekoak eta epeak; halaber, Ezaugarrien taulan jasotako zenbatekoak bermatuko ditu aseguruak. Hori dena kontratua sinatu eta gehienez hilabete batean egiaztatu beharko du, jatorrizko poliza eta dagozkion primen ordainagiriak aurkeztuz edo aseguru etxearen ziurtagiri egokiak aurkeztuz. Atal honetan aipatu den edozein beharkizun ez egiaztatzea kontratua suntsitzeko arrazoia izango da, betebehar hau, izatez, kontratuaren funtsezko betebehar bat delako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211.1 f) artikuluan aurreikusita dagoenez.

Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunaren gain joango dira aseguru polizetan ezarrita egon litezkeen frankizien ordainez edo polizaren mugak gainditzen dituzten kalte eta galeren ordainez ordaindu beharreko zenbateko guztiak, baita aseguru polizetan estali gabeko ondasunei eta arriskuei legozkiekeenak ere.

7.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute lizitatze, adjudikatze eta egikaritze prozesuetatik eratorritako datu guztiei kontratua amaitu bitartean gardentasuna ematea.

**36.2.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak**

1.-Kontratua jaso aurretiko hilabetean, enpresa kontratistak adjudikazio irizpideen eta izaera sozialeko gauzatze baldintza berezien ebaluazioa aurkeztu beharko du **V. eranskinean** jasotakoari jarraituz.

2.- Kontratuaren parte diren egikaritzeko baldintza berezi guztiak berdin-berdin eskatuko zaizkie haren gauzapenean parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

3.- Aurreikusitakoez gain, hala badagokio, ezaugarrien taulako **18** eta **19. ataletan** gauzatzeko betebehar bereziak dira jarraian adierazten direnak:

**36.2.1.- Enpresa kontratistak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan dituen betebeharrak**

1.- Kontratistak lan arloan, gizarte segurantza arloan eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden xedapen legezko, arauzko eta konbentzional guztiak bete behar ditu. Zehazki, Gipuzkoako Eraikuntza eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan baldintzak aplikatu beharko ditu, indarrean leudeken eta hartan xedatutakoa hobetuko luketen enpresako beste hitzarmen edo itun batzuen kalterik gabe, bere erantzukizun esklusiboa izanik lan-istripuekin lotutako oro. Zehazki, zuzen, zorrotz eta bere kontura bete behar du Segurtasun eta Osasun Plana, eraikuntza obretan segurtasun eta osasuneko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan eta klausula agiri honetan xedatutakoaren arabera idatzia eta onartua izan behar duena. Enpresa kontratatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango enpresa kontratistak ez baditu betebehar horiek betetzen.

2.- Zuinketa egiaztatzeko akta sinatu edo obren harrera akta egin aurretik, baita kontratazio organoak edo kontratuaren arduradunak egoki jotzen duen unean ere, adjudikaziodunak dokumentazio hau aurkeztu behar du:

- Kontratua egikaritzeari atxikita dagoen pertsona kopuruaren zerrenda nominalaren erantzukizuneko aitorpena, sexua, lanaldia, lan kategoria, kontratuaren iraupena eta soldatak zehaztuz.
- ITA agiria (altan dagoen Langilearen Txostena, Gizarte Segurantzak egina) eta langileak, enpresaren antzinatasuna eta kotizazio oinarriak aitortzen dituen Gizarte Segurantzak igorritako ziurtagiria.
- Hala badagokio, enpresaren TC1 eta TC2 ereduak edo Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eredu estandarraren araberako lan kontratuen kopiak.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

3.- Enpresa kontratistak, era berean, egiaztatu beharko du, azpikontratatutako enpresei datu egokiak eskatu ostean, enpresa horiek ere obrak gauzatzen diren bitartean lan eta Gizarte Segurantza arloan indarrean diren xedapenak aplikatzen dituztela eta, zehazkiago, aipatutako Gipuzkoako Eraikuntza eta Herri Lanetako Hitzarmen Kolektiboko lan baldintzak betetzen dituztela, indarrean leudeken eta hartan xedatutakoa hobetuko luketen enpresako beste hitzarmen edo itun batzuen kalterik gabe, eta baita segurtasun eta laneko osasun arloko betebeharrak aplikatzen dituztela ere.

4.- Kontratua egikaritzen den bitartean, enpresa kontratistak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

5.- Enpresa lizitatzaileek zehaztu beharko dute haiei kontratua adjudikatuz gero kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei zer hitzarmen kolektibo aplikatuko dien. Eta ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko dute, kontratua adjudikatu ondoren langile horiei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz.

6.- Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, baldin eta adjudikazioaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoei eragiten badie, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratuaren arduradunari.

7.- Enpresa kontratistak sexu jazarpena eta sexuaren arrazoizko jazarpena ekiditeko lan-baldintzak bultzatu eta hori prebenitzeko eta horiek pairatu dituztenek egin ditzaketen salaketa edo erreklamazioei bide emateko prozedura berariazkoak arbitratu beharko ditu.

8.- Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzetik eratorritako gastuak enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira eta kontratua egikaritzako eskainitako prezioan barneratuta egongo dira.

9.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatu beharko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri eman beharko dio kontratazio organoari.

10.- Enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, Gipuzkoako Foru Aldundia zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

11.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua egikaritzean. Hura ez betetzeak berekin ekarriko du, zigor ekonomikoak ipintzea, ez-betetzearen proportzionaltasunaren arabera, eta zigorraren zenbatekoa ezingo da kontratuko prezioaren % 10 baino handiagoa izan, kontratua gauzatzeko 36.2.4 klausulan azpikontrataziorako ezarritako salbuespenarekin. Nolanahi ere, klausula agiri honen arabera betebehar baten ez-betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez-betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du.

### 36.2.2.- Bete beharreko hizkuntza betebeharrak

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua. Azken horien artean dago, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren organismo autonomoetan jarduera esparruan euskararen erabilera arautzen duen plana.

2.- Diseinu eta jarduketa guztiak (errotuluak, argitalpenak, seinaleztapenak, oharrak eta jakinarazpenak) planteamendu elebidun batekin egin behar dira, euskaraz eta gaztelaniaz; dena dela, kasu jakin batzuetan, egokia izan daiteke euskarari lehentasuna ematea, planteatutako ekintzaren ezaugarrien arabera eta herritarren segmentuaren arabera. Beti ere, herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea bermatuko da.

3.- Hizkuntza arloko betekizun hori ez betetzeak berekin ekarriko du SPKL legearen 192. artikuluan aurreikusitako zigorra ezartzea, kontratuaren objektu den prestazioa akatsekin gauzatzeagatik.

4.- Zigorra, ez-betetzearen larritasunaren araberakoa izango da, proportzionaltasunaren irizpideari jarraiki.

### 36.2.3.- Emakume eta gizonen berdintasun arloko betebeharrak

1.- Enpresa adjudikaziodunak, prestazioa egiterakoan, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu behar ditu, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Neurri horien artean dago, nahitaez, berdintasun plan bat egitea eta aplikatzea, betiere enpresak aurretik halakorik ez badu, 250 langile baino gutxiago dituelako eta, beraz, horretara behartuta ez dagoelako, 3/2007 Lege Organikoko 45.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Berdintasun planak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko jarduketak aurreikusi ditzake, besteak beste, ondorengo arloetan: okupazioan, sustapen eta prestakuntzarako aukeretan; sailkapen profesionalean; ordainsarietan; bizitza pertsonala, familiakoa eta lana bateragarri egiteko lanaldiaren antolaketan; eta jazarpen sexualari eta sexu arrazoiarengatikoari aurrea hartzeko zereginean.

Plan hori kontratuaren egikaritzearen barruan egin behar da, aipatutako Lege organikoaren edukiari jarraituz.

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan jasotako “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea” aitorpena eskuratu izanak balioko du egiaztatzeko kontratistak entitatean baduela eta aplikatzen dela berdintasun plan bat.

Administrazio kontratatzaileak edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari aitorpen horren erabilpen baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

2.- Enpresa adjudikaziodunak neurriak ezarriko ditu kontratuaren egikaritzeari atxikitako langileen lana eta bizitza pertsonala edo familiakoa bateragarri egiten laguntzeko eta, enpresa azpikontratistarik balego, hark ere ezarri dituela egiaztatuko du.

Langileen lana eta bizitza pertsonala edo familiarra bateratzen laguntzeko, adjudikaziodunari eskatuko zaio neurriak hartzeko familia zamak dituzten langileentzako ordutegi malgutasuna bermatzeko, edo familia ardurak dituzten langileentzako lanaldi partzialaren eta lanaldi osoaren arteko mugikortasuna ziurtatzeko.

3.- Kontratua egikaritzeko langile berriak kontratatu behar badira, eta kontratuari atxikita dagoen plantillan emakumeen eta gizonen arteko desoreka egon eta ondorioz emakume gutxiago badago, gutxienez emakume bat kontratatu beharko da edo, bestela, aldi baterako kontratua duen emakume bati kontratu mugagabea egin beharko zaio. Langile talde desorekatua izango da langile guztien artean emakumeak % 40 baino gutxiago badira.

4.- Enpresa adjudikaziodunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

5.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez-betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, klausula agiri honen arabera betebehar baten ez-betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez-betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du.

**36.2.4.- Betebeharrak azpikontratazioan**

1.- Enpresa kontratistak prestazioa modu partzialean egitea ados dezake hirugarren aldeekin. Azpikontratu horiek burutzean SPKL legearen 215. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoaren arabera eskagarri diren betekizunak bete beharko dira.

2.- Ezaugarrien taulako **15. atalean** aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.

3.- SPKL legearen 215.2. artikuluan ezarritako betebeharrak bete ezean, artikulu bereko 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da.

4.- Enpresa azpikontratistak soilik enpresa kontratista nagusiaren mende geratuko dira. Horrenbestez, azken hori izango da kontratua egikaritzearen gaineko erantzukizun osoa hartuko duena Administrazioaren aurrean, gizarte edo lan arloko betebeharrak betetzeari dagokionean ere bai, halaber, datuen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende egoteko betebeharra.

5.- Enpresa kontratistak enpresa azpikontratistei egin beharreko ordainketetan SPKL legearen 216. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

6.- Kontratistak, gainera, betebehar hauek beteko ditu:

a) Enpresa kontratistak bete egin beharko ditu urriaren 18ko 32/2006 Legeak, Eraikuntzaren Sektorean Azpikontratazioa Arautzekoak, ezarritako arauak, baita laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden arauak ere, eta azpikontratista orori ere araudi hori betearaziko dio. Hain zuzen ere, egiaztatu egin beharko du azpikontratatzen duen enpresa orok kontratua egikaritzean honako betebehar hauek betetzen dituela:

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

- Jarduera gauzatzeko eta lanen zuzendaritza zuzenean burutzeko egokiak diren azpiegitura eta bitartekoak dituela erabilgarri, eta langileak ez direla bidegabe laga.
- Bere langileek laneko arriskuen prebentzioari dagokionez beharrezkoa den prestakuntza dutela.
- Prebentzio antolaketa egokia duela.
- Dagozkion betebehar guztiak betetzen dituela laneko segurtasun eta osasun arloan eta, zehazki, prebentzio jarduerak koordinatzeari buruzkoak eta beharrezkoak diren prebentzio baliabideak baliatzeari buruzkoak.
- laneko egonkortasuna bermatze aldera.
- Kontratua mugagabea duten langileek gutxieneko portzentajea % 30ekoa dela, Egiaztatutako Enpresen Erregistroan inskribatuta dagoela.
- Legean ezarritako azpikontratazio araubideko mugak betetzen dituela.

b) Enpresa kontratistak Azpikontratazio Liburua eduki beharko du, eta liburu hori eskura egongo da obran esku hartzen duten eragile guztientzat. Gainera, Azpikontratazio Liburuan egindako azpikontratazioen anotazio guztiak segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileari jakinarazi beharko dio.
c) Enpresa kontratistak obran parte hartzen ari diren enpresa guztietako langileen ordezkariei berri eman beharko die bai obran egindako kontratazio edo azpikontratazioei buruz, bai jarduerak koordinatzeko aurreikusi diren neurriei buruz.
d) Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak Gizarte Segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.
e) Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako kasuetan daudenekin.
f) Enpresa kontratistak egiaztatu egin beharko du enpresa azpikontratistak, langile berriak kontratatu behar baditu kontratua egikaritzeko, lehenetsi dituela gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak, lanik ez dutenak edo lan merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituztenak.

7.- Enpresa kontratistak azpikontratazioaren berri emango die langileen ordezkariei, lan arloko legediak agintzen duen bezala.

8.- Enpresa edo entitate adjudikaziodunak kontratazio organoari aurkeztu beharko dio azpikontratuaren dokumentua, eta dokumentu horretan ezarriko dira azpikontratatuak kontratua betetzeko dituen obligazioak eta ez-betetzeak ekarriko dituen ondorioak.

9.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, baldin eta ez badaude jasoak indarrean dagoen kontratazio araudian, eta egiaztatu egin beharko dira kontratuan. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez-betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez-betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez-betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du, betiere, SPKL legearen 211. artikuluko 1. apartatuko f) letraren bigarren paragrafoan ezarritako betekizunak betetzen badira.

10.- Administrazio kontratatzaile honek egiaztatu ahal izango du kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak zorrotz egiten dituela kontratistak.

Kasu horretan, enpresa kontratistak kontratua perfekzionatzen denean hartan parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaileen xehetasunezko zerrenda igorriko dio administrazio kontratatzaileari, hark hala eskatuta, horietako bakoitzak ordainketa epearekin lotura zuzena izanik, azpikontratzeari edo hornidurari dagokionez bete beharreko baldintzekin batera. Halaber, entitate kontratatzaileak hala eskatuta, haiei ordainketa guztiak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean legez ezarritako ordainketa epeen barruan prestazioa amaitu ondotik, aplikagarri denerako. Betebehar horiek ezinbestekotzat jotzen dira, eta ez badira betetzen, legediak ezarritako ondorioez gain, zigor hauek jartzeko aukera izango da: eguneko zigorrak, ordainketan atzeratzen den egun natural bakoitzeko 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko bakoitzagatik. Zigorrak ezingo du inola ere kontratuaren prezioaren % 10 gainditu.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

### 36.3.- Informazioaren segurtasun arloko betebeharrak

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratuaren egikaritzan informazioa eskuratu dutenei emandako informazioa, datuak edo zehaztapenak konfidentzialtzat hartu beharko dituzte bai kontratistak eta bai bere mendeko langileek. Beraz, haiek ezin izango dira, ez osorik eta ez partzialki, argitaratu, kopiatu, erabili, laga edo hirugarrenei mailegatu, SPKLren 133.2 artikuluan jasotakoaren arabera. Betebehar horiek entitate kontratatzailearekiko harremanak amaituta ere iraungo dute.

2.- Adjudikaziodunak bete beharko du 2017ko azaroaren 13ko GAO aldizkarian argitaratutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informazioaren Segurtasun Politika eta zerbitzu edo informazio horiekin lotutako segurtasun arloko araudia; halaber, bere langileei horren berri eman eta prestatzera behartuta dago.

3.- Baldin eta kontratua egikaritzeko beharrezkoa bada kontratistak tratamendurako arduradunaren kontura datu pertsonalak tratatzea:

a) Tratamendu horren helburua adieraziko da ezaugarrien taulan. Kontratistak ezingo ditu datu horiek erabili zehaztutakoak ez diren beste helburu batzuetarako. Baldin eta kontratistak beste helburu baterako erabiltzen baditu datuak, kontratuko estipulazioak edo indarrean dagoen araudia bete gabe komunikatu edo erabiltzen baditu, bera ere tratamendurako ardura duen organotzat hartuko da eta pertsonalki egindako arau hausteez erantzungo du.

b) Kontratistak bete beharko ditu estatuko eta Europar Batasuneko datu babesari buruzko araudia eta entitate kontratatzaileak ematen dizkion jarraibideak.

c) Kontratistak adierazi beharko du, kontratua formalizatu aurretik, non dauden zerbitzariak eta nondik emango diren haiekin lotutako zerbitzuak. Kontratuaren bizialdian hari dagokionez egiten den edozein aldaketa behar den garaian komunikatu beharko da.

d) Kontratista behartuta dago, tratamendurako arduraduna den aldetik, izaera pertsonaleko datuek segurtasuna bermatzen duten eta haien deuseztapena, galera edo komunikazioa edo baimenik gabeko sarbidea saihesten duten neurri teknikoak eta antolaketakoak hartzera.

e) Kontratuko zerbitzua amaitzean, kontratistak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako tratamendurako arduradunari.

Funtsezko betebehartzat hartuko da, SPKLren 211. artikuluaren 1. apartatuko f) letran jasotakoaren ondorioetarako, atal honen a), b) eta c) letretan adierazitakoa, bai eta lizitatzaileei beren eskaintzan honako hauek adierazteko dagokien betebeharra ere: zerbitzariak edo haiekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzea aurreikusi ote duten, zein den enpresaren izena edo profila –kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen aipamena eginez– eta zer azpikontratistari aginduko dioten kontratua egitea. d) eta e) letrak jasotako betebeharrak kontratua egikaritzeko baldintza bereziak izango dira.

4.- Kontratuaren iraunaldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du adjudikaziodunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, entitate kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

### 36.4.- Kontratazio publikoari aplikatzeko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua betetzeari buruzko betebeharrak

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen du kontratazio publikoen arloko jardunbideetan erakutsi behar diren balio etikoak eta jokabideak nahiz kudeaketa onaren printzipioak eta jardun profesionalerako arauak jasotzea.

2.- Hori guztia, kontratazio publikoei buruzko Europako Parlamentuaren otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauaren 16. kontuan hartuzkoan aurreikusitakoaren arabera, zeinak aginte publikoak behartzen dituen bitarteko posible guztiak baliatzera kontratazio publikoetako prozeduretan interes gatazkak ekiditeko. Eta bereziki adierazten du ezen horrek “interes gatazkak detektatzera, saihestera eta konpontzera bideratutako prozedurak erabiltzea” ekar dezakeela berekin.

Horregatik, prozedura horren zuzentasuna bermatzearren, Gipuzkoako Foru Administrazioaren kontratazio publikoari aplikatzeko Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua betetzeari buruzko adierazpena **IV. eranskinean** jasotzen da.

3.- Kode hori, funtsezko betekizuna baita, nahitaez betetzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen dituen lizitazioetan parte hartzen duten eta horietan adjudikaziodun gertatzen diren enpresa eta entitateentzat. Hori ez betetzeak



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

kontratazio organoa gaitu egingo du, kodearen kontrako jardueraren egile den enpresa edo entitatea kanpoan uzteko edo, hala dagokionean, erruzko ez-betetzeagatik kontratua suntsiarazteko, horrek berekin dakartzan lege ondorio guztiekin.

4.- Kontratua suntsiaraztea bidezko ez denean, zehapena ezarriko da. Jokabide Kodearen ez-betetze bakoitza arau hauste larritzat hartuko da, eta horrek kontratuko aurrekontuaren % 10eraino iritsi ahal izango den zehapena eragingo du.

5.- Zehapenak ezartzeko prozedurak kontuan hartuko ditu kontraesanaren printzipioa eta zehapenak mailakatzeko printzipioa, proportzionaltasunaren eta gertatzen diren zertzeladen arabera jokatzearren.

**36.5.- Eraikitzeko eta eraisteko hondakinen arloko betebeharrak**

1.- Klausula agiri honetako ezaugarrien taulako **28. atalean** horrela aurreikusten denean, aplikagarri den araudian aurreikusitako betebeharrez gain, obra gauzatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak plan bat aurkeztu behar dio departamentuari. Obran sortuko diren eraikuntza eta eraispen hondakinei lotuta dagozkion betebeharrak nola beteko dituen islatu behar du plan horretan, zehazki, Eraikitze eta eraisteko hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuko 4.1 eta 5. artikuluetan jasotako betebeharrak islatuz. Halaber 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena, bete beharko da.

2.- Behin zuzendaritza fakultatiboak onartuta, plana obrako kontratuzko dokumentuen parte izango da.

3.- Betekizun horiek ez betetzeak berekin ekarriko du SPKL legearen 192. artikuluan aurreikusitako zigorra ezartzea, kontratuaren objektu den prestazioa akatsekin gauzatzeagatik.

4.- Zigorra, ez-betetzearen araberakoa izango da, proportzio irizpide bati jarraituz.

**36.6.- Lantaldeari eta langileei buruzko betebeharrak**

1.- Kontratistak lantalde eta langile egokiekin egin behar ditu obrak, eskaintzak jasotzen dituen bitartekoak barne, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun.

2.- Zehazki, bere kontura aurreikusi behar du proiekturako eta obrarako beharko duen laguntza tekniko guztia, lan eta espezialitate bakoitzak eskatzen dituen premiei ondo erantzuteko gai izango dena.

3.- Administrazioak bereziki delikatu edo kritikoak diren gai edo arloetan arduradunak izango diren adituak izendatzeko eskatu ahalko dio enpresa kontratistari, baldin eta obretako Zuzendaritza Fakultatiboaren ustez horien beharra badago.

4.- Enpresa kontratista behartuta dago, klausula agiri honetan aipatzen diren lanak egiteko, bere eskaintzan izenez aipatutako teknikariak eta beste langileak izendatzera, kontratua sinatu aurretik, bertan zehazten den dedikazioarekin. Ondorioz, kontratuak irauten duen bitartean, dedikazio osoarekin izendatutako langileek ezingo dute beste ezertan lan egin. Halaber, enpresa kontratistak ezingo ditu izendatutako langileak ordeztu, baldin eta kontratuaren arduradunaren berariazko baimenik ez badu. Horregatik, kontratistak lanak egiteko izendatu dituen langileak aldatu ahal izateko Administrazioaren onarpena beharko du eta, hala eskatzen bazaio, sartu nahi dituen langile berrien curriculuma aurkeztu beharko du aldez aurretik.

5.- Pertsona kolaboratzaileen parte hartzea proposatzen bada, horien lankidetza konpromisoaren adierazpena helarazi beharko da. Enpresa kontratistak ezingo die bere eskaintzan proposatutako kolaborazioei uko egin eta ezingo ditu beste batzuekin ordeztu Kontratuaren arduradunaren onarpenik izan ezean.

6.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua egikaritzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez-betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez-betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez-betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kobratzeko, isunaren zenbatekoa osoki edo zati batean kenduko da enpresa kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.

**36.7.- Makineriari eta bitarteko teknikoei buruzko betebeharrak**

1.- Kontratistak bere eskaintzan aipatutako makinak eta bitarteko teknikoak ere obretan jarriko ditu eta, oro har, obrak ondo egiteko behar diren guztiak.

2.- Bere eskaintzan sartutako makinak edo bitarteko teknikoak aldatu ahal izateko, proposamen arrazoitu bat aurkeztu beharko du, eta Administrazioaren onarpena behar du.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

3.- Makinak eta bitarteko teknikoak lana ongi egiteko baldintzatan eduki behar da, eta kontratuaren objektu den obrara behar besteko dedikazioa eskainiko diote. Erretiratu nahi izanez gero, aurrena zuritu egin beharko da objektu zuten lan unitatea amaitu dela, eta ondoren, zuzendaritza fakultatiboak baimendu egin beharko du.

4.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak egikaritzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua egikaritzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez-betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren % 10. Nolanahi ere, betebehar baten ez-betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez-betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du. Isun horiek kobratzeko, isunaren zenbatekoa osoki edo zati batean kenduko da enpresa kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik; bestela, bermearen bidez ordainduko dira.

**36.8.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak**

1.- Enpresa kontratistaren kontura eta haren ardura izango da, baldin eta kontratazio organoak bere kabuz kudeatzea erabakitzen ez badu, lanak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimen, lizentzia eta onarpenak eskuratzea, bere kontura eskumeneko organismoen baldintza eta manuak errespetatu beharko dituelarik.

2.- Baimenak, lizentziak edo onarpenak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat badakar, horiek ordaintzea edo gordailuak egitea ere kontratistaren kontua izango da.

**37.- Kontratistari eskatu ahal zaizkion gastuak**

Kontratistaren kontura izango dira kontratua formalizatzeko gastuak eskritura publikora eramaten bada. Era berean, bere kontura izango dira, kontratatutako prestazioa betetzeko enpresak egin beharreko gastuak, horien barnean daudelarik gastu orokorrak, finantza arlokoak, aseguruenak, tasak, finantzak, entseguak, garraio eta joan-etorriekin lotutakoak bere mendeko teknikari eta laguntzaileen ordainsari eta dietekin lotutakoak eta klausula agiri honetan aurreikusten diren gainerakoak.

**38.- Klausula sozialak ez betetzearen ondorio juridikoak**

1.- Administrazio klausula partikularren agiri honetan egikaritze baldintza berezi moduan ezarritako betebeharren ez-betetzeak arin, larri edo oso larritzat joko dira, isunak jartzeari begira.

1.1.- Lan arloko, Gizarte Segurantza arloko eta laneko segurtasun eta osasun arloko betebeharren ez-betetzeak honela kalifikatuko dira:

1.1.1.- Ez-betetze arinak izango dira:

a) Langileari idatziz ez jakinaraztea kontratuaren oinarrizko osagaiak eta lan prestazioa betetzeko baldintza nagusiak, dagokion araudiak ezarritako modu eta epeetan.

b) Enpresan dauden lanpostu hutsen berri ez ematea lanaldi partzialeko langileei, urruneko lan betetzen dutenei, eta iraunaldi zehatzeko kontratuak edo aldi baterakoak dituztenei.

c) Lan istripuen eta deklaratutako laneko gaixotasunen berri ez ematea lan agintaritza eskudunari garaiz eta dagokion moduan, istripu edo gaixotasun horiek arintzat jotzen direnean.

d) Enpresako zerbitzua uzten duten langileen bajak edo haiengan eragina duten bestelako aldaketak garaiz eta forma egokian ez jakinaraztea.

e) Langileek helarazitako aldi baterako ezintasunen baja, baja-berrespen edo altari buruzko mediku agirien kopiak ez bidaltzea dagokion entitateari.

f) Betebehar formalak edo agirizkoei eragiten dien gainerako ez-betetzeak.

1.1.2.- Ez-betetze larriak izango dira:

a) Lan kontratua idatziz ez formalizatzea, betekizun hori legez bete beharrekoa denean edo langileak eskatu duenean.

b) Kontratu motei, iraunaldi zehatzeko kontratuei eta aldi baterako kontratuei buruzko araudia urratzea, kontratu mota ezberdinak lege iruzurrez erabiliz.

c) Lanaldi, gaueko lan, aparteko ordu, ordu osagarri, atsedenaldi, opor eta baimenei buruzko arauak eta legezko nahiz hitzarturiko mugak urratzea.

d) Enpresak bere kasa funtsezko lan baldintzen aldaketa inposatzea, legez ezarritako prozedurak jarraitu gabe.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

e) Legez edo hitzarmen kolektiboz ezarritako lan baldintzak baino txarragoak ezartzea, eta, orobat, Langileen Estatutuaren Legearen 4. artikuluan langileei aitortutako eskubideen kontrako egintzak nahiz ez-egiteak burutzea, oso larritzat jo ez badira.

f) Laneko segurtasun eta osasun plana ez egitea lan arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako edukiarekin, bereziki ez denean jaso obrako langileen segurtasun eta osasunari eragiten dieten berariazko arriskuei moldatutako eduki erreal eta egokia, edo ez denean plana egokitu langileari eragiten dioten jarduera, prozedura edo ingurunearen ezaugarri berezietara.

g) Laneko segurtasun eta osasun planaren jarraipena egiteko betebeharra ez betetzea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiak ezarritako modu eta edukiarekin.

h) Indarrean dagoen araudiaren araberako mediku azterketak eta langileen osasun egoera aztertzeko aldizkako zainketa probak ez egitea, edo haien emaitzen berri dagokien langileei ez ematea.

i) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, ez-betetzea oso larritzat jotzen denean izan ezik.

j) Lan istripuen eta deklaratutako lanbide gaixotasunen berri garaiz eta forma egokian ez ematea lan agintaritzari, indarrean dauden xedapenen arabera, horiek larri, oso larri edo hilgarri kalifikazioa dutenean, edo ikerketarik ez burutzea langileen osasunari kalterik eragin zaionean edo prebentzio neurriak nahikoak ez direla susmatzeko zantzuak daudenean.

k) Lan arriskuen prebentzioari buruzko araudia ez betetzea, ez-betetzea arin edo oso larritzat jo denean izan ezik.

l) Lantokiaren edo langunearen garbitasun eza, ohikoa denean edo langileen osotasun fisikorako eta osasunerako arriskurik dakarrenean.

m) Langile berrien hasierako afiliazioa edo alta ez eskatzea, edo epez kanpo eskatzea, ikuskapen jarduketa baten ondorioz. Kasu horretan dagoen langile bakoitzeko ez-betetze bat eman dela ulertuko da.

n) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak dagokion modu eta epeetan ez ordaintzea, edo dagokion diru sarrera behar den zenbatekoan ez egitea, kotizazio agiriak aurkeztuta, betiere diru sarrera ez egitearen arrazoia enpresaren konkurtso deklarazioa ez bada, edo ezinbesteko kasua, edo ez bada eskatu kuotak ordaintzeko epearen atzerapena inspekzio jarduna hasi aurretik eta, ezezko ebazpenik ez bada eman.

1.1.3.- Ez-betetze oso larriak izango dira:

a) Langileari zor zaion soldata ez ordaintzea edo ordainketa atzeratzea behin eta berriro.

b) Enpresak bere kasa hartzen dituen eta diskriminazio zuzena nahiz zeharkakoa eragiten duten erabakiak: adina edo desgaitasuna dela-eta aldeko eta aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; ordainsari, lanaldi, prestakuntza eta gainerako lan baldintzak direla-eta aldeko eta aurkako diskriminazioa eragiten dutenak; eta jatorria, arraza edo etnia barne, egoera zibila, gizarte maila, erlijio edo sinesteak, ideia politikoak, sexu joera, sindikatuei eta sindikatuen erabakiei atxikitzea edo ez atxikitzea, enpresako beste langile batzuekin ahaidetasun lotura izatea edo hizkuntza dela-eta diskriminazioa eragiten dutenak

c) Enpresak bere kasa hartzen dituen erabakiak, langileei kalte eginez, baldin eta erabaki horiek tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa bete dadila galdatzeko enpresan egindako erreklamazio baten aurrean edo administrazio akzio zein akzio judizial baten aurrean erreakzioz hartuak badira.

d) Enpresak langileekin pentsioak direla-eta hartutako konpromisoak ez betetzea pentsio planak eta pentsio funtsak arautzen dituen araudian ezarritako moduan.

e) Lan arriskuen prebentziorako araudia bete gabe egiten diren lanak berehala ez geldiaraztea edo geldieran ez uztea, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak errekerimendua egin duenean, eta lan horiek, Ikuskatzailetzaren iritziz, langileen segurtasun eta osasunerako hurbil-hurbileko arrisku larria dakartenean berekin, edo lanei berriz ekitea geldiarazteko arrazoiak aurrez zuzendu gabe.

f) Langileak euren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren lanpostuetara atxikitzea, bai eta langile horiek laneko segurtasun eta osasunaren alorrean dituzten lanbide gaitasunak kontuan izan gabe lanean jardutea, egoera horiek langileen segurtasun eta osasunerako hurbil-hurbileko arrisku larria eragiten dutenean.

g) Prebentzio baliabideen presentzia eza, legez nahitaezkoa denean, edo haien presentziak dakartzan betebeharrak ez betetzea, dagokion araudian arriskutsutzat edo arrisku berezikotzat jotako jarduerak direnean.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

h) Honako alderdi hauek ez egiaztatzea, dagokion araudiak ezarritako moduan: enpresa azpikontratatuek zuzendaritza nahiz produkzioan lan arriskuen prebentzioko prestakuntza duten langileak badituztela, prebentzio antolamendu egokia badutela, eta dagokion erregistroan inskribatua daudela.

i) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzean lan baldintzei aplika dakiekeen beste edozein neurri hartu ez izana, baldin eta horien ondorioz langileen segurtasun eta osasunerako arrisku hurbil-hurbileko eta larria eragiten bada.

j) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontzeptu guztiengatik biltzen dituen kuotak ez ordaintzea, dagokion epe eta moduan, kotizazio agiriak ez direnean aurkeztu.

k) Kotizazio agirietan edo bestelako agirietan datu faltsuak edo okerrak deklaratzea edo agerraraztea iruzur eginez, betiere kuotetan eragina badute.

l) Lana ematea kontratuak esekita edo lanaldia murriztua duten langileei, kontratuak esekita dauden bitartean, edo lan agintaritzari edo langabezia prestazioak kudeatzen dituen entitateari jakinarazitako lanaldi murriztutik kanpo.

m) Langileei deskontatutako Gizarte Segurantzako kuota zatia epean ez ordaintzea eta harekin geratzea, edo legez dagokiona baino deskontu handiagoa egitea.

1.2.- Azpikontratazio arloko betebeharren ez-betetzeak honela kalifikatuko dira:

1.2.1.- Ez-betetze arinak izango dira:

a) Azpikontratazioaren Liburua eskura ez izatea obran, eraikuntza sektorean azpikontratazioa arautzen duen araudiak ezarri moduan.

b) Enpresa kontratistak ez egiaztatzea enpresa azpikontratatua erabiltzen ari den makinen edukitza egiaztatzen duen agiri edo tituluak, edota indarrean dauden legeek eskatzen duten gainerako informazioa.

c) Segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileari ez jakinaraztea Azpikontratazio Liburuan jasotako edozein azpikontratazio.

1.2.2.- Ez-betetze larriak izango dira:

a) Eraikuntza sektorean azpikontratazioa arautzen duen legeak eskatzen duen Azpikontratazio Liburua ez izatea, edo modu ordenatuan eta egunean ez eramatea, dagokion araudian ezarri moduan.

b) Ez egiaztatzea enpresa azpikontratatuek badituztela, bai zuzendaritzan, bai produkzioan, laneko arriskuen prebentzio arloan prestatuta dauden langileak, edota badutela prebentzio antolaketa egokia.

c) Oro har, kontratua egikaritzen den bitartean ez egiaztatzea enpresa azpikontratatuek betetzen dutela azpikontratazioari buruzko klausula, baldin eta ez-betetzeak ez badira ez-betetze arin edo oso larritzat jo.

d) Kontratua egikaritzean, legez ezarritako mugak gainditzen dituen azpikontratista edo langile autonomo kopurua jardutea obran, betiere obra zuzendaritzaren berariazko baimena izan gabe, baldin eta ez-betetzea oso larritzat jo ez bada.

e) Langileen ordezkariei egindako azpikontratazioak ez jakinaraztea.

1.2.3.- Ez-betetze oso larriak izango dira:

a) Kontratua egikaritzean, legez ezarritako mugak gainditzen dituen azpikontratista edo langile autonomo kopurua jardutea obran, betiere obra zuzendaritzaren berariazko baimena izan gabe, baldin eta arriskuei buruzko araudiak lan horiek arrisku bereziak dituzten lantzat jotzen badituzte.

b) Langileen lagapena indarrean dagoen legedia urratuz.

c) Kontratuaren zati bat kontratatzea ordenamendu juridikoaren arabera kontratatzeko ezgaitua dagoen pertsona batekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 71. artikuluko egoeratako batean dagoen pertsona batekin.

d) Ez egiaztatzea enpresa azpikontratistak kontratu mugagabearekin izan behar duen gutxieneko langile portzentajea baduela, betiere eraikuntza sektorean azpikontratazioa arautzen duen araudiarekin bat.

1.3.- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ezarritako betebeharren ez- betetzeak honela kalifikatuko dira:

1.3.1.- Ez-betetze arina izango da kontratazio organoaren aurrean ez aurkeztea kontratuaren egikaritzeri egokitutako berdintasun plana, plana aurkeztea badagokio.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

1.3.2.- Ez-betetze larriak izango dira:

a) Kontratuaren egikaritzeari egokitutako berdintasun plana ez egitea, plaza egitea badagokio.

b) Kontratuaren egikaritzeari begira egindako berdintasun planeko neurriak ez betetzea modu sistematiko batean.

c) Neurririk ez ezartzea kontratuari atxikita dauden langileen lana eta familia bizitza edo bizitza pertsonala bateragarri egiteko.

d) Obrek iraun artean emakume bat ere gutxienez kontratatu ez izana edo emakume baten aldi baterako kontratazioa mugagabe bihurtu ez izana, baldin eta kontratua burutzeko beharrezkoa balitz langileren bat kontratatzea eta enpresa kontratistak kontratuari atxikita duen plantillan emakume eta gizonezko kopurua ez balitz orekatua.

1.3.3.- Ez-betetze oso larria izango da sexuan oinarritutako jazarpena egitea enpresa zuzentzeko ahalmenak baliatuz, edozein dela ere jazarpenaren egilea.

2.- Egikaritze baldintza berezi moduan ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, azpikontratazioari buruzko **36.2.4 klausulan** jasotako kasuan izan ezik, honako isun hauek jarriko dira, betiere kontratua suntsitzea ez badagokio.

2.1.- Ez-betetze arinengatik kontratuaren prezioaren % 4 gaindituko ez duen isuna jarriko da.

2.2.- Ez-betetze larriengatik, kontratuaren prezioaren % 7 baino isun handiagoa jarriko da, baina prezio horren % 7 gainditu gabe.

2.3.- Ez-betetze larriengatik, kontratuaren prezioaren % 7 baino isun handiagoa jarriko da, baina prezio horren % 10 gainditu gabe, klausula agiri honetako hurrengo klausulan azpikontratazioari dagokionez aurreikusitakoa salbuetsita.

3.- Isun horiek ordainketa oso edo partzial gisa kontratistari ordaindu beharrekotik dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira edo, hala balegokio, eratutako bermetik, aipatutako ziurtapenetatik kendu ezin direnean.

4.- Betebeharrek kontratuko funtsezko betebehar izaera izango dute horien ez-betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan eta ez-betetze horiek kontratua suntsitzea ekarri ahal izango dute.

**39.- Berandutze zigorrak eta beste zigor batzuk**

1.- Kontratazio organoak zehapenak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari jarraian adierazten diren ez-betetzeengatik eta adierazten diren zenbatekoetan, SPKL legearen 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoari jarraituz:

a) Guztizko epea edo epe partzialen bat ez betetzeagatik.

b) Prestazioa gaizki betetzeagatik; ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik agiri honetan jasotako kontratua egikaritzeko beste edozein baldintza berezi, hurrengo ataletan adierazitakoez bestelakoak direnak.

c) Eskaintzak balioesteko irizpide modura kontuan hartutako alderdietan eragina duen zerbait ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik.

d) Soldatak ez ordaintzeagatik edo ordainketa behin eta berriro atzeratzeagatik edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata baldintzen azpitiko baldintzak aplikatzeagatik, modu larri eta dolozkoan.

2.- Zigorren zenbatekoak hauek dira:

a) a) letran barneratzen den arrazoia dela medio, SPKL legearen 193. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitako zenbatekoa, baldin eta ezaugarrien taulako 23. atalean beste zenbait ezartzen ez badira.

b) b), c) eta d) letretan jasotako arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio organoak, arrazoi bidez, larri edo oso larri irizten ez dion ez-betetzeari, horrelakoetan % 7raino iritsi ahal izango baita larrien kasuan, eta % 10eraino oso larrienean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.

Zehapen horiek, aurreko a) letran aipatzen diren betebeharren urraketarako adierazitako salbuespenarekin, proportzionalak izan beharko dira ez-betetzearen larritasunarekiko eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo dira kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagokoak izan, BEZa aparte, eta guztien artean ere ezingo da kontratuaren prezioaren % 50a gainditu.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziei so, hura behar bezala egikaritzeko aurreko atalean adierazitakoez aparteko zigorrak ezartzea beharrezkotzat jotzen bada, horiek ezaugarrien taulako 23. atalean zehaztuko dira.

4.- Enpresa kontratista berandutze egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aurretik eskaera egitea.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

5.- Bitartekoak baliatzeko konpromisoa, hizkuntzaren inguruko baldintzak edo betetzeari dagozkion bestelako baldintza bereziak ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozko zigorrak kontratazio organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.

6.- Eskaintzak balioesteko irizpide modura kontuan hartutako alderdietan eragina dutenak ez betetzearen edo gaizki betetzearen ondoriozko zigorrak ezarriko dira, harreraren unean, kontratazio organoak ikusten duenean, kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio, azken horrek kontratua edo eskaintzan bere gain hartutako konpromisoren bat ez dituela gauzatu, betiere horiek garrantzitsuak izan badira adjudikazioari begira.

Bete ez diren konpromisoak adierazgarritzat joko dira, bete gabeko irizpidean kontratistak eskuratutako puntuazioaren % 50 deskontatu ostean, bere eskaintza ongien balioetsia ez bada.

7.- Gaizki betetzearen ondoriozko zehapenak ezarriko dira, kontratistak akats horiek konpontzeko legez duen betebeharraren gorabehera.

8.- Zigorra ezartzeak ez du kalte eta galerengatiko kalte-ordaina salbuesten.

9.- Berandutzearen ondoriozko zigorren zenbatekoa faktura edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala badagokio, bermetik aipatu dokumentuetatik kentzea ezinezkoa denean. Bermea baliatuz ordaintzen direnean, kontratista behartuta geratuko da berme hori birjarri edo areagotzera, egikaritzen denetik hamabost egun naturaleko epean. Hala egin ezean, kontratatua eteteko nahiko arrazoi dagoela ulertuko da.

**40.- Zuinketa egiaztatzea**

1.- Kontratuan zehaztutako epean (ez da izango sinatzen denetik hasi eta hilabete baino luzeagoa), salbuespenezko kasu justifikaturik ez bada, obren ardura duen Administrazioaren zerbitzuak, lizitazioaren aurretik egindako zuinketa egiaztatuko du kontratistaren aurrean, emaitzaren akta jasoz. Akta alde biek sinatuko dute, eta ale bat kontratua egin zuen organora bidaliko da. Egiaztatzeko aktan HAKLAO erregelamenduaren 140. artikuluan xedatutakoa jaso beharko da berariaz.

2.- Zuinketa egiaztatzeko akta sinatu aurretik, adjudikaziodunak klausula agiri honen 36.2.1 klausularen 2. atalean jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratuaren erantzuleari. Obligazio hori ez betetzearen ondorioak klausula horren 11. atalean jasota daude.

3.- Kontratuaren objektua sortetan banatzen bada, lanak hasiko dira sorta bakoitzari dagozkion lanen egikaritze fasearen arabera, betiere zuinketa egiaztatzeko akta edo hasierako akta egin ondoren; akta hori sorta bakoitzeko lanak egiten hasiko aurreko lehendabiziko egunetan sinatuko da.

4.- Presakotzat jotzen diren espedienteen kasuan, kontratua abian jartzeko epea gehienez hilabetekoa izango da, kontratua sinatu denetik.

5.- Egiaztapenaren ondorioz frogatzen bada, zuzendaritza fakultatiboaren arabera, eta kontratistaren aldetiko erreparorik gabe, proiektua bideragarria dela eta badirela lurrak erabilgarri, hark hura abiatzeko onespena emango du, eta egikaritze epea akta sinatu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen. Kontratistak, proiektuaren bideragarritasunari buruzko erreparorik egin gabe, obraren egikaritzean eragin dezaketen bestelako ohartarazpenik egin badu, ohartarazpen horien kontuan izanik, proiektua abiatzea ala haren hasiera etetea erabakiko du, aktan bertan erabakia arrazoituz. Hasteko baimena hartan jasoko da esplizituki, eta kontratistak horren berri izan duela ulertuko da hura sinatzearekin soilik.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren inguruabarrak egiaztatzen ez direnean edo zuzendaritza fakultatiboak beharrezkotzat jotzen badu proiektatutako obrak aldatzea, haien hasiera etenik geratuko da eta horrela jasoko da aktan, Administrazioari berehala jakinarazteko betebeharra izanik, eta Administrazioak dagokion ebazpena emango du. Aldatzeko prozedura HAKLAO erregelamenduaren 141. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriko da, haren araubidea SPKL legearen 205. artikuluan aurreikusitakoa izanik.

6.- SPKL legearen 245.b) artikuluarekin bat etorriz, kontratua eteteko nahiko arrazoi izango da obren hasiera lau hilabete baino gehiagoan eteten bada.

7.- Hasierarik ezaren arrazoia desagertuta, kontratazio organoak dagokion ebazpena emango du, eta kontratistari jakinaraziko zaio modu frogagarrian. Egikaritze epea obrak hasteko baimenaren akordioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen.

Aurrez xedatutakoa era berean aplikatuko da kontratistak erreparoak egiten dituenean zuinketa egiaztatzeko ekitaldian. Alabaina, kontratazio organoaren iritziz erreparo horiek oinarri gabeak badira, obren hasiera ez da etengo, eta, ondorioz, ez da eman beharko beste erabakirik obrak hasteko eta gauzatzeko epeen kontaketa aldatzeko.

8.- Zuinketa egiaztatzeko akta kontratuaren osagai izango da betearazte ondorioetarako.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

### 41.- Lan programa

1.- Ezaugarri taularen 21. atalean hala ezartzen badu (bakarra edo sorta bakoitzekoa), enpresa kontratistak aurkeztu behar dio obren zuzendaritzari, hamabost egun baliodunen gehieneko epean, kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita, bere eskaintzan jasotako lan programaren garapen egokitua, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 144.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Lan programan ezingo dira kontratuzko baldintzak aldatu. Dena den, guztizko epea murriztea proposatu ahal izango da, betiere, Administrazioak kreditu erabilgarri nahiko badu urteko zenbatekoetan aldaketa horietatik eratorritako birdoikuntzak egiteko eta, obraren adjudikazioaren aurrekontu osoa areagotzea eragin gabe.

3.- Foru Aldundiko eskumeneko organoak programa horren inguruko ebazpena emango du hura aurkeztu eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, aldaketak sartzeko edo manu jakin batzuk betearazteko aukera izanik, betiere, kontratuko klausulen aurka ez badoaz.

4.- Lanen programa onartzen denean, kontratuari erantsiko zaio, eta, hala badagokio, urteko zenbatekoak doituko dira.

5.- Lan programa eguneratu egin beharko du enpresa kontratistak kontratuzko baldintzak aldatzen diren bakoitzean. Hala, lan programa hori Administrazioaren aldetik jasotako argibideei jarraikiz finkatu edo eguneratu eta abiaraziko du.

6.- Enpresa kontratistak bere lan programa egokitu eta koordinatuko du eragindako zerbitzuak kendu eta birjarriz, hala kontratuaren barnean daudenak nola beste enpresa batzuen jabetzakoak direnak (Iberdrola SA, Telefonica de España SAU, Euskaltel SA eta Sociedad Estatal Correos y Telegrafos SA, SME eta gas hornidurako enpresak).

7.- Obrako zuzendaritzak aukera izango du ziurtagiriak geldiarazteko enpresa kontratistak lan programa behar bezala aurkeztu arte, berandutze interesak jasotzeko eskubiderik gabe, hala badagokio, ziurtagiri horien ordainketan atzeratzeagatik.

### 42.- Laneko segurtasun eta osasun plana

1.- Enpresa kontratistak Laneko Segurtasun eta Osasun Plan bat eratu beharko du, eraikuntza obretako segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuko 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Plan horren ale bikoitza aurkeztuko dio Administrazioari kontratua formalizatu eta hurrengo hamaika egun naturaleko epean. Segurtasun eta osasun arloko planean ezingo dira kontratuzko baldintzak aldatu eta, bertan, beste alderdi batzuetan, hala badagozkio, aurreikusten diren azpikontratazioak zehaztu beharko dira.

Plan hori, segurtasun eta osasun gaietako koordinatzaileak edo, bestela, obra zuzendariak egindako txostenarekin batera, Aldundiko organo eskudunaren onarpenaren mende jarriko da obrak hasi aurretik. Horretarako, segurtasun eta osasun gaietako koordinatzaileak txostena egin beharko du, plana onartzea bidezkoa den ala ez adierazteko, harrera egunetik zazpi egun naturaleko epean. Onargarria ez balitz, zer gauza zuzendu beharko liratekeen adierazi eta horretarako epe bat ezarriko du, zuzenketen garrantzien arabera, baina inoiz ere ez zazpi egun natural baino gehiagokoa.

Edozein kasutan, Laneko Segurtasun eta Osasun Plana onartzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da kontratua formalizatzen denetik aurrera. Enpresa kontratistak aurreko lerroaldean adierazitako epeak ez betetzeagatik obrak hastea ezinezkoa balitz haiek hasteko baimena jasotzen den unean, ezingo du arrazoi horrengatik epea luzatzea eskatu.

2.- Koordinatzaileak edo obra zuzendaritzan eginkizun hori izendatuta daukan kideak, eskumen osoa izango du obra osoa edo lubaki jakinen batzuk behin-behingoz geldiarazteko, segurtasuneko eta osasuneko neurriak ez direla betetzen eta pertsonentzat arrisku larri edo berehalakoa dagoela ikusiz gero. Kasu horietan, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskapenari eta gainerako interesdunei jakinaraziko die berehala, urriaren 14 1627/1997 Errege Dekretuko 14. artikuluarekin bat etorriz.

3.- Ez da obrarik hasiko hari buruzko laneko segurtasun eta osasun plana onartu gabe. Obrak gauzatzen diren bitartean obrak geldiaraztea agintzen bada enpresa kontratistak edo azpikontratistak segurtasun eta osasun arloko neurriak bete ez dituztelako, obra edo lubakia geldirik dagoen bitartean denbora zenbatzen jarraituko da egikaritze epeari dagokionez eta hura eteteko arrazoi izan daiteke, SPKL legearen 193., 195. eta 237. artikuluekin bat etorriz.

4.- Kontratuaren objektua sortetan banatu behar bada, kontratistak Segurtasun eta Osasun Plana egin beharko du adjudikaziodun ateratzen den sortari dagokion lanaren inguruan.

### 43.- Beste batzuei eragindako kalteak eta galerak

1.- Enpresa kontratista kontu handiz ibiliko da hirugarren aldeei kalteak eta galerak eragitea ekiditeko, bere erantzukizun esklusiboa izango delarik obrak egikaritzetik, zuzenean edo zeharka, eratortzen direnak.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

Enpresa kontratistaren betebeharra izango da kontratua betetzeko lanen ondorioz kontratistaren beraren edo haren mendeko langileen edo bitartekoen eraginez gertatutako kalte eta galera guztien ordainak ematea. Kalte edo galerak Administrazioak emandako aginduren baten ondorioz zuzenean eta berehala gertatuak badira, legeetan ezarritako mugen barruan izango du erantzukizuna kontratistak.

Enpresa batek baino gehiagok kontratua elkarrekin betetzen badute, modu solidarioan erantzun beharko diote klausula honetan aipatzen den erantzukizunari.

2.- Enpresa adjudikaziodunak aseguru kontratu bat izango du erabilgarri uneoro hirugarren aldeei, pertsona nahiz gauzei, eragindako aipatu kalte eta galera horiei erantzun ala izateko, eta baita kontratua indarrean den bitartean Administrazioari edo haren mendeko langileei eragindako kalteak estaltzekoa ere. Gutxieneko estaldura klausula agiri honen hasieran agertzen den ezaugarrien taulako **24. atalean** ezarritako zenbatekoarekin bat etorriko da.

3.- Aseguru polizak indarrean egon beharko du, gutxienez kontratuak irauten duen bitarte guztian (luzapenak barne), eta berme aldiak ere irauten duen bitartean (luzatzen bada ere).

### 44.- Obretan gertatuko kalteak

1.- Bere jarduera garatzeko derrigorrezkoak diren aseguruez gain, enpresa kontratistak egindako obretan eta egiten ari direnetan gerta daitezkeen kalteak estaltzeko aseguru bat egin beharko du bere kontura, aseguratu modura Gipuzkoako Foru Aldundia barneratuz. Aseguru horren gutxienezko zenbatekoa ezaugarrien taulako **24. atalean** ezarritakoa izango da. Bertan, onuradun gisa, ezbeharren bat gertatzekotan, kontratazio organoa agertu beharko da. Aseguru horrek bere baitan hartu behar ditu estaldura hauek:

a) Sute, tximista, leherketa, lapurreta, espoliazio, talka, trebetasun falta, zabarkeria, egintza bandaliko eta asmo gaiztoko arriskuetatik, izadiaren arriskuetatik edo aipatu gabeko beste edozein arriskutatik eratorritako kalte eta galera materialak.

b) Berme gehigarriak, ondorengoek eragindakoak:

- Diseinu akatsa, fabrikatzailearen arriskua.
- Aparteko orduek, obra hondakinak kentzeak, eraisketa lanak egiteak, agintariek hartutako neurriek eta abarrek eragindako gastuak.
- Lehendik dauden ondasunei eragindako kalteak, sabotajea.
- Greba, matxinada eta konmozio zibila.

2.- Eraikuntza aldiko edozein arrazoik eragindako galera edo kalte guztiak aseguratuta geldituko dira, baita eraikuntza aldian nahiz beranduago obra kontratuan zehaztutako betebeharrak zuzen betetzeko egindako lanen ondorioz eragin daitezkeen kalte eta galerak ere.

3.- Polizak indarrean egon beharko du, gutxienez kontratuak irauten duen bitarte guztian (luzapenak barne, halakorik bada), eta berme aldiak ere irauten duen bitartean (luzatzen bada ere).

4.- Obra hartzeko garaian egiaztatu beharko da polizak beste urtebeteko indarraldia duela, obrak hartzen diren egunetik aurrera, eta aseguruaren prima guztiz ordainduta dagoela.

### 45.- Kontratuaren aldaketak

1.- Kontratua burutzen denean, bakar-bakarrik interes publikoagatiko aldaketak sartu ahal izango dira bertan, horrela aurreikusten bada ezaugarrien taulako **22. atalean**, edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako balizkoetan eta mugekin.

2.- Nolanahi ere, kontratistarentzat nahitaezkoak izango dira ezaugarrien taulako 22. atalean aurreikusitako aldaketak nahiz SPKLren 205. artikuluak kontratua aldatzeko aipatzen dituen kasuekin bat datozenak, banaka hartuta edo elkarrekin hartuta, zenbatekoan kontratuaren hasierako prezioaren % 20tik gorakoa ez den aldaketa bat inplikatzen dutenean, BEZik gabe.

3.- Ez kontratistak, ez kontratuaren arduradunak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Administrazioak behar bezala baimendu gabeko kontratu aldaketek enpresa kontratistaren ardura eragingo dute. Horrek, hala dagokionean, aldaketak izan dituzten alderdiak berregin beharko ditu, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

4.- Kontratu aldaketak dokumentu administratiboan formalizatu beharko dira, SPKLren 153. artikuluan adieraziarekin bat, behin betiko bermea aurrez birdoituta.

5.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak gaurkotu egin beharko du laneko programa.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

6.- Proiektuaren aldaketa

Obraren zuzendariak beharrekotzat jotzen duenean proiektuan aldaketa bat egitea, kontratazio organoari baimena eskatuko dio espedientea hasteko, eta urrats hauek egingo ditu:

a) Proiektu aldatua idaztea eta teknikoki onartzea.

b) Kontratistaren eta proiektuaren idazlearen entzunaldia ematea, gutxienez hiru egunekoa.

c) Kontratazio organoak espedientea eta beharrezkoak diren gastu osagarriak onartzea.

Dena dela, ez dira aldaketatzat hartuko honako hauek:

i. Gehiegizko neurketak, halakotzat hartuta obra behar bezala egiten den bitartean, proiektuaren neurketetan aurreikusitakoen aldean benetan egindako unitate kopuruan bakarrik gertatzen diren aldaketak, betiere kontratuaren hasierako prezioaren % 10eko baino gehiagoko gastua ez dakarrenean. Gehiegizko neurketak obra bukaeraren ziurtagirian jasoko dira.

ii. Prezio berriak sartzea, lege honetan eta garapen arauetan ezarritako prozeduren bidez finkatutakoak, betiere kontratuaren prezio orokorrean igoerarik ez badakarte eta, oro har hartuta, hasierako aurrekontuaren % 3 baino gehiago diren obra unitateei eragiten ez badiete.

**45.1.- Aldaketa aurreikusiak**

1.- Kontratu hau aldatu ahal izango da, baldintza agiri honetako ezaugarrien taulako **22. atalean** hala aurreikusi bada, bertan xedatutako baldintza, irismen eta mugekin.

2.- Aurreikusitako aldaketek ezingo dute kontratuan sartuta ez dagoen prezio unitario berririk ekarri, eta ezingo dute kontratuaren hasierako prezioaren % 20 gainditu.

3.- Atal honetan ezarritako prerrogatibari buruzko akordioak hartzeko izapidetzen den prozeduran, kontratuaren arduradunak kontratua aldatzeko proposamena idatzi ondoren, eta kontratistari eta proiektuaren egileari (hala badagokio) entzunaldia eman ondoren gutxienez hiru egunez, Kontratazio Organoari jakinaraziko zaio onar dezan.

**45.2.- Aldaketa aurreikusi gabeak**

1.- Ezaugarrien taulako **22. atalean** aurreikusitakoez bestelako aldaketak sartu ahal izango dira, bakar-bakarrik behar beste justifikatzen denean SPKLren 205.2 artikuluan jasotzen diren balizko tasatuetako bat edo batzuk gertatzen direla, eta betiere aldaketa horiek mugatzen badira eragile izan duten arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbesteko aldaketei erantzutera.

2.- Atal honetan ezarritako prerrogatibari buruzko akordioak hartzeko izapidetzen den prozeduran, kontratuaren arduradunak kontratua aldatzeko proposamena idatzi ondoren, eta kontratua aldatu baino lehen, proiektuaren egileari entzunaldia eman beharko dio baldin eta proiektua kontratazio organokoa ez den norbaitek prestatu badu zerbitzu kontratu baten bidez, gehienez ere hiru eguneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

Baldin eta, obra-kontratuaren aldaketak direla-eta, proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak sartu behar badira, edo aldaketaka horien ezaugarriak proiektuan ezarritakoen desberdinak badira eta ez bada beste lizitazio bat egin behar, horiei aplikatu beharreko prezioak Administrazioak ezarriko ditu, kontratistari entzuteko gutxienez hiru egun baliodun ezarri ondoren. Kontratistak ez baditu finkatutako prezioak onartzen, kontratazio organoak aukera izango du obra horiek beste enpresaburu bati emateko prezio berean, zuzenean berak egiteko, edo kontratua suntsitzeko, lege honetako 211. artikuluari jarraituz.

3.- Kontratistak aldaketa nahitaez egin behar duenean, entzunaldi izapidea egin ondoren, kontratazio organoari jakinaraziko zaio onar dezan.

4.- Aldaketa nahitaezkoa ez denean kontratistarentzat, kontratazio organoak bakarrik hartuko du erabakia, aldez aurretik kontratistak idatziz onarpena eman ondoren; bestela, suntsitu egingo da kontratua, 211.1 g) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

**46.- Obrak etetea**

1.- Administrazioak kontratuaren egikaritzea etetea adostu ahalko du, interes publikoko arrazoiak direla medio. Era berean, kontratua etengo du SPKL legearen 198.5. artikuluan adierazitako inguruabarra emango balitz. Kontratua eteteari dagokionez, SPKL legearen 208. artikuluan xedatutakoa nahiz HAKLAO erregelamenduaren 103. artikuluan, Estatuko obren kontratateziorako Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 63. klausulan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da.

2.- SPKL legearen 208. artikuluarekin bat etorriz, Administrazioak adostuko balu kontratua etetea edo etete hori gertatuko balitz SPKL legearen 198.5. artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik, Administrazioak kontratistak jasandako kalte eta galerak ordainduko dizkio.

**47.- Neurketak, balorazioa eta konturako ordainketak**

1.- Kontratistari soilik proiektuko dokumentuekin bat etorriz egindako obra ordainduko zaio.

2.- Ezingo da inolako ziurtapenik egin, beraz ezta ordainketarik egin ere, kontratua sinatu artean.

3.- Obra zuzendaritzak hilero neurtuko ditu egindako lanak, eta kontratista neurketa horietan egon daiteke. Dimentsioak edo ezaugarriak ondoren ezkutuan geldituko diren obra eta obra zatietarako, kontratistak zuzendaritzari nahikoa aurrerapenez ohartaraziko dio, neurketak egin eta datuak hartu ahal izateko. Ildo horri eutsiz, definitzen dituzten planoak altxatuko ditu. Adostasuna kontratistak sinatu beharko du. Aldez aurretik ohartarazpenik ez badago (kontrakoa egiaztatzea kontratistari dagokio), gaiari buruz Administrazioak hartutako erabakiak onartu beharko ditu.

4.- Obra mota bakoitzerako, neurketa unitate modura, proiektuan (neurketei dagokien zatian) adierazitakoa hartuko da. Behin neurketak amaituta, zuzendaritzak hilero balioetsitako zerrenda idatziko du.

5.- Exekutatutako obra balioetsiko da, obra unitate bakoitzeko, proiektuko prezio unitarioen taularen eta kontratuan aurreikusita ez dauden behar bezala baimendutako obra unitate berrien prezioen arabera. Kontuan izango da, halaber, obra akasdunak, metatutako materialak, partida altxatuak eta obran ipinitako lantaldearen konturako ordainketak ordaintzeko baldintza agiriak aurreikusitakoa.

6.- Balioespenaren emaitzari, aurreko lerroaldean adierazitako moduan lortua, HAKLAO erregelamenduaren 131. artikuluan adierazitako portzentajeak gaineratuko zaizkio, aurrekontua osatzeko hartuak, eta hortik ateratzen den zifra adjudikazio koefizientearekin biderkatuko da. Modu horretan hileko zerrenda balioetsia eskuratuko da, hileko ziurtapena ekarriko duena, Administrazioak igorriko duena dagokion hileko hurrengo hamar egunetan.

7.- Kontratua eskaintza onenari adjudikatzeko ebazpenean Administrazioak behin betiko zehaztuko du adjudikazio koefizientea.

Adjudikazio koefizientea izango da: enpresa adjudikaziodunak bere proposameneko eskaintza ekonomikoaren eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren arteko zatiketa.

Lanak egiten diren bitartean indarrean egongo diren banakako prezioak Administrazioak onartutako proiektuan agertzen direnak izango dira, eta horiei enpresa lizitatzaileak egindako eskaintza ekonomikotik ateratzen den adjudikazio koefizientea ezarriko zaie.

8.- Aurrekontuan oroharreko prezioan adierazitako partidak, preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitako moduan ordainduko dira. Halakorik ez bada, HAKLAO erregelamenduaren 154. artikuluan xedatutakoa beteko da.

9.- Justifikatzekoak diren oroharreko partidak ordaintzeko, lanak ez direnean obra unitatetan adierazteko egokiak, Administrazioak azter dezake beste norbaitek fakturatzea, obren zuzendaritza fakultatiboak horretarako baimena eta babesa aurretik eman badu. Fakturatutako zenbateko likidoa kontratistak ordainduko du, eta horren ordaina Administrazioak emango dio hurrengo hileko obra ziurtapenean sartuz. Zenbateko horri gastu orokorren kontzeptuan % 13 gehituko zaio, eta ez zaio beste inolako gehikuntzarik egingo, ezta adjudikazio beherapena aplikatuko ere.

10.- Zerrenda baloraziodunа tramitatzen duen aldi berean, obra zuzendariak haren ale bat bidaliko dio kontratistari, ados dagoen edo erreparoak dituen adieraz dezan, eta zerrenda jasotzen duen egunetik hasita hamar laneguneko epea izango du kontratistak alegazioak egiteko.

Epe hori amaitzerako kontratistak ez badu alegaziorik egin, zerrenda baloratuarekin ados dagoela joko da. Bestela gertatzen bada eta kontratistaren alegazioak osorik edo zati batean onartzen badira, haiek kontuan hartuko dira hurrengo zerrenda balioetsia idaztean edo, hala badagokio, kontratuaren amaierako ziurtapenean edo likidazioan.

Ondorio horietarako, SPKL Legearen hogeita hamabigarren xedapen gehigarriko bigarren apartatuarekin bat etorriz, kontratistak aurkeztutako faktura bakoitzean kontabilitate publikoan eskumenak dituen administrazio-organoaren nahiz

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

kontratazio organoaren eta hartzailearen identifikazioa jaso beharko du, ezaugarrien taulako 1. atalean xedatutakoaren arabera.

11.- Fakturak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontabilitate erregistroa sortzekoak, eta abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrari eta fakturen kontabilitate erregistroari buruzko alderdi batzuk arautzen dituenak, ezartzen dituzten balizkoetan.

Balizko horietan, Gipuzkoako lurralde historikoko faktura elektronikoen sarrera puntu orokorraren bitartez faktura elektronikoa aurkezteak idazpen automatikoa sorraraziko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren sarrera erregistro orokorrean, eta beste idazpen bat, halaber, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuak kudeatzen duen fakturen kontabilitate erregistroan.

12.- Administrazioak obra ziurtapenak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaindu behar dio kontratistari haren prezioa, eta, berandutzen bada, hogeita hamar eguneko epe hori amaitzen denez geroztik sortutako berandutze interesak eta kobraketa gastuen kalte-ordaina ere ordaindu beharko dizkio, horretan aplikatu beharrekoa abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena, delarik.

Interesak kobratzen hasteko epea hasitzat emateko, kontratistak erregistro administratiboan aurkeztuak izan beharko ditu fakturak, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako moduan, epe eta forma egokian, hogeita hamar eguneko epean salgaiak entregatutako egunetik edo zerbitzua benetan ematen denetik zenbatzen hasita.

13.- 210. artikuluko 4. apartatuan eta 243. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoaren kalterik gabe, Administrazioak obra ziurtapenak edo kontratuan helarazitako ondareei edo emandako zerbitzuei buruz xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko dokumentuak onartu beharko ditu ondareak egiaz entregatu edo zerbitzuak eman eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

14.- Era guztietara, kontratistak ez badu, faktura elektronikoari buruz indarrean den araudian ezarritako moduan, erregistro administratiboan faktura aurkezteko duen hogeita hamar eguneko epea betetzen, interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura erregistroan aurkeztu eta hogeita hamar egun igaro arte, eta baldin eta bitartean administrazioak ontzat eman ez badu, hala badagokio, eta ordaindu ez badu.

Hala ere, kontratuan agintzen duten urtekoak baino zenbateko handiagoa eskatzen duten ziurtapenetan, legezko epea ez da kontatuko ziurtapena onartzen denetik aurrera, baizik eta hitzartutako baldintzen eta onartutako lan programen arabera izan beharko lukeen geroagoko dataren arabera

15.- Igortzen diren ziurtapenek eta kontratistari ordaintzen zaizkion zenbatekoek konturako abonutzat hartuko dira, eta ez dute inolaz ere suposatuko hartzen dituzten obren onarpen edo harrera, gauzatutako obren azken ziurtapenaren zain eta kontratuaren likidazioaren kontura. Kontura abonu horietan 198. artikuluko 2. apartatuko bigarren paragrafoan xedatutakoa beteko da.

16.- Kontratistak, legez ezarritako bideren batetik, hirugarren bati laga diezaioke kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea, baina, lagapenak ondorioak izango baditu eta Administrazioak lagapen hartzaileari ordaintzeko agindua emango badu, modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio lagapen akordioa.

17.- Kontratistak, klausula agiri honetako ezaugarrien taulako 26. atalean adierazitako baldintzetan, aurrez idatzizko eskaera egin ostean, metatuak dauden materialengatik eta instalazio edo ekipoengatik kontura ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, horretarako HAKLAO erregelamenduaren 155.etik 157.era bitarteko artikuluetan zehazten den moduan eta horietan adierazitako bermeekin. Zenbatekoa eta baldintzak aipatutako 26. atalean jasotzen dira. Ordainketa horiek atal horretan zehazten den bermearen prestazioaren bitartez egongo dira aseguratuta.

### 48.- Obraren egikaritzea amaitu dela ohartaraztea

Kontratistak, ezaugarrien taulako 29. atalean aurreikusten den denborarekin, kontratua amaitu edo egikaritzeko aurreikusitako dataren berri emango dio obrako zuzendaritzari, haren harrera egin dadin. Jakinarazpen hori izapidetzeko, harrera egiteko ordezkariaren izendapenerako eta Kontu Hartzailetzari jakinarazpenerako prozedura eta epeak, HAKLAO erregelamenduaren 163. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

### 49.- Obraren harrera

1.- Kontratistak kontratua bete duela esango da, objektua osorik gauzatu duenean, kontratuan ezarri bezala, eta Administrazioa ados dagoela.

2.- Obra amaitu eta hurrengo hilean haren harrera egingo da ekitaldi formalean.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

3.- Obrak egoera onean eta aurreikusitako preskripzioen arabera badauden, administrazio kontratatzaileak eta haren ordezkariak izendatutako funtzionario teknikariak hartutzat emango ditu, eta dagokion akta jasoko da lau aletan. Akta hori harreran bertaratuek sinatu beharko dute. Ale bat Administrazioa ordezkatzen duen funtzionario teknikariari helaraziko zaio, beste bat zuzendaritza fakultatiboari, eta beste bat kontratistari, eta berme epea orduan hasiko da. Harrera aktan zuzendaritza fakultatiboak neurketa orokorrarekin hasteko eguna ipiniko du, kontratista ekitaldi horren jakinaren gainean geratuko delarik.

4.- Kontratista obraren harrerara bertaratzera derrigortuta dago. Egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla medio betebehar hori betetzen ez badu, Administrazioaren ordezkariak aktaren ale bat igorriko dio, hamar eguneko epean, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan, eta kontratazio organoak ebatziko ditu horiek.

5.- Obrak jasotzeko moduko egoeran ez daudenean, aktan hala adieraziko da, eta horien zuzendaritza fakultatiboak hautemandako akatsak adieraziko ditu eta beharrezkoak diren argibideak emango ditu, akats horiek konpontzeko epe bat ipiniz. Epe hori igarota kontratistak ez balitu akatsak konpondu, luzaezina den beste epe bat eman ahal izango da edo kontratua eten daiteke, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio.

**50.- Neurketa orokorra eta azken ziurtapena**

1.- Obren harrera egin ondoren, neurketa orokorra egingo da kontratista bertan egonik, eta harrera egiten denetik hilabeteko epean zuzendaritza fakultatiboak proiektuaren arabera egiaz gauzatutakoen neurketa egingo du. Harrera egin eta 3 hilabeteko epearen barnean, kontratazio organoak gauzatutako obren azken ziurtapena onartu beharko du, hala badagokio, kontratistari ordainduko zaiona kontratuaren likidazioaren kontura SPKL legearen 198.4. artikuluan aurreikusitako epean.

2.- Hamabi milioi eurotik gorako balio estimatua duten obren kasuan, likidazio eta neurketa eragiketak bereziki konplexuak direnean, baldintza agirietan azken ziurtapena onartzeko hiru hilabeteko epea luzatzeko aukera aurreikusi ahal izango da, betiere, kasu guztietan, bost hilabeteko epea gainditzen ez bada, SPKL legearen 243.1. artikuluko azken lerroaldean xedatutakoarekin bat etorriz. Azken ziurtapena onartzeko epea ezaugarrien taulako **30. atalean** arautzen da.

**51.- Berme epea eta likidazioa**

1.- Berme epea harrera datatik hasiko da zenbatzen eta ezaugarrien taulako **16. atalean** adierazitakoa izango da. Berme epean zehar kontratistaren ardura izango da obren artapena eta zaintza. Sorten kasuan, behin betiko bermea sorta bakoitzerako konputatutako da banan-banan.

2.- Epe horretan zehar aplikagarri den SPKL legearen 110. artikuluan adierazitako kontzeptuengatik erantzungo du behin betiko bermeak.

3.- Epe horretan zehar, kontratista, edozein kasutan, obrak artatu eta zaintzeaz arduratuko da proiektuko preskripzio tekniko partikularren agirian aurreikusitakoaren arabera eta obrako zuzendaritzak ematen dituen argibideak betez. Administrazioaren iritziz, zaintza horri jaramonik egin ez badio eta obra arriskuan jartzen bada, Administrazioak beregain hartuko luke kalteak ekiditeko zeregin hori kontratistaren kargura.

4.- Harrera partzialak baleude, jasotako zatien berme epea dagozkion harrera partzialen datetatik aurrera hasiko da zenbatzen.

5.- Berme epea bukatu baino hamabost egun lehenago, zuzendaritza fakultatiboak obren egoerari buruzko txostena egingo du, ofizioz edo kontratistak eskatuta. Txostena aldekoa bada, kontratista erantzukizun guztietatik libre geldituko da –Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 244. artikuluan xedatutakoan izan ezik–, eta bermea itzuli edo kitatu beharko da, kontratua likidatu, eta, egiteko ordainketarik baldin badago, ordaindu, hirurogei eguneko epean. Txostena aldekoa izango ez bada eta antzemandako akatsak obrak egiterakoan izandako hutsuneen ondorio badira eta ez eraikitakoaren erabilerarenak, berme epearen barruan obra zuzendaritzak beharrezkoak diren aginduak emango dizkio kontratistari konponketak egin ditzan eta horretarako epe bat emango dio; lan horiek egin bitartean kontratista arduratuko da obren zaintzaz eta ez du inolako ordainik jasoko berme epea luzatzeagatik.

6.- Edozein kasutan, berme epe hori igaro ostean, txostena aldekoa bada edo, bestela, eraikitakoa konpondu ostean, egiaz gauzatutakoen likidazioaren proposamena egingo du zuzendaritza fakultatiboak hilabeteko epean, eta kontratistari jakinaraziko zaio hamar eguneko epean bere adostasuna ager dezan edo egokitzat jotzen dituen erreparoak azal ditzan. Kontratistaren erantzuna jaso ondoren edo horretarako ezarritako epea igaro ostean, bi hilabeteko epean, kontratazio organoak likidazioa onartu beharko du eta, hala badagokio, haren ondoriozko saldoa ordaindu.

7-. Espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoi ezohikoengatik kontratazio organoak obraren egiazko okupazioa edo hura erabilera publikoaren zerbitzura ipintzea adostuko balu, harrera ekitaldi formala bete gabe

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

ere, inguruabar horiek gertatzen direnetik aurrera obraren harrera ekitaldiari dagokion ondorioak emango dira HAKLAO erregelamenduaren 168. artikuluan ezarritako moduan.

**52.- Ezkutuko akatsen gaineko erantzukizuna**

1.- Obra suntsituko balitz edo bere funtzioarekin bateraezinak diren kalte larriak jasango balitu berme epea igaro ostean, eraikuntzako ezkutuko akatsen ondorioz, kontratistak kontratua ez duelako bete, hura izango da gertatzen edo adierazten diren kalte eta galeren erantzulea hamabost urteko epe baten barruan harrera egiten denetik zenbatzen hasita.

2.- Halaber, kontratista izango da epe horretan zehar obran zimentazio, euskarri, habeei, forjatu, eustorma edo egiturazko beste elementu batzuetan eragindako eta eraikuntzaren erresistentzia mekanikoa eta eginkortasuna arrisku zuzenean ipintzea dakarten akats edo gabezien ondorioz sortutako kalte materialen erantzulea, horiek obraren harrera datatik zenbatzen hasita erreparorik gabe edo horiek konpontzen direnetik aurrera.

3.- Akats edo gabezietatik eratorritako kalte materialengatik aurreko atalean aurreikusitako erantzukizuna eskatzeko ekintzak bi urteko epean preskribatuko dira kalte horiek gertatu edo adierazten direnetik zenbatzen hasita, kontratua ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak eskatzeko manten daitezkeen ekintzen kalterik gabe.

4.- Epe hori amaitutakoan kalte edo galerarik izan ez bada, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

**53.- Kontratua suntsiaraztea**

1.- Kontratua suntsitzeko arrazoi izango da, SPKL legearen 211. eta 245. artikuluetan ezarritakoez gain, SPKL legean adierazitako funtsezko betebeharrak**,** **36.3 eta 36.4 klausuletan** jasotzen direnak eta ezaugarrien taulako **20. atalean** kontratuzko funtsezko betebehar modura adierazten direnak ez betetzea.

2.- SPKL legearen 211.2. artikuluarekin bat etorriz, suntsitzearen ondorioko ekonomikoekin lotuta kontratua suntsitzeko efektu ezberdinak dituzten arrazoi ugari gertatzen direnean, denboran lehentasunez agertutakoari erreparatu beharko zaio.

3.- Kontratua suntsitzea kontratazio organoak erabakiko du SPKL legearen 212.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, arauz ezarritako moduan izapidetutako prozedura bidez.

4.- Kontratua kontratistaren erruzko ez-betetze baten ondorioz ebazten denean, bermea konfiskatu egingo zaio eta, gainera, Administrazioari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kalte eta galeren ondorioz. Kontratazio organoak, kontratistak ordaindu behar dituen kalte-galerak zehaztu beharko ditu. Horretarako, erabakia arrazoitu egin beharko du, kontratistari entzunaldia egiteko aukera eskaini ondoren. Erabakia hartzeko, besteak beste, honako faktore hauek izango dira kontuan: proiektatutako inbertsioari dakarkion atzerapena eta Administrazioari inolako beharrik gabe eragin dizkion gastuak.

5.- Suntsitzeko arrazoiak aplikatzeko SPKL legearen 212. artikuluan xedatutakoa beteko da eta bere ondorioetarako SPKL legearen 213. eta 246. artikuluetan xedatutakoa, eta baita, hala badagokio, hura garatzeko araudian xedatutakoa.

6.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izan daitezke, halaber, honako hauek:

a) Kontratua egikaritu bitartean, kontratuari atxikitako langileei kontratistak soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzat indarrean dauden lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

   Arrazoi horrengatiko suntsiarazpena, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkaritzak eskaturik erabakiko da; soldatak ez ordaintze horrek eragiten dien langileak SPKLren 130. artikuluarekin bat subrogazioa bidezkoa den langileak direnean eta enpresa kontratistak zor dituen soldatek kontratuaren adjudikazio prezioaren % 5etik gorakoak direnean, aldiz, kontratazio organoak ofizioz erabaki ahal izango du, zuzenean, kontratua suntsiaraztea.

b) klausula agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasun arloko oso ez-betetze larria gertatzea.

7.- Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkartekideetakoren bat SPKLren 211.1 artikuluko a) eta b) letretan jaso balizkoan sartzen denean Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten beste enpresei kontratuko obligazioak betetzea eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.

8.- Haatik, ez-betetzeengatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5aren multiplo batera iristen direnean, kontratazio organoak eskumena izango du kontratua suntsitzeko edo beste zehapen batzuk ezarriz harekin jarraitzeko.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

**54.- Obrak ondare eta eskubideen inbentario nagusira gaineratzea**

Obra inbentariagarriak –eta hobekuntzakoak, hala dagokienean– ondasun eta eskubideen inbentario orokorrean sartzeari begira, kontratistak obra zuzendariari harrera aktari erantsiko zaion obraren neurri eta ezaugarriei buruzko dokumentu bat emango dio, obra jasotzen denean gelditzen den egoera xehetasunez definituta.

**55.- Kontraesanak**

Proiektua osatzen duten agirien eta administrazio klausula partikularren agiriaren artean kontraesanak egonez gero zehaztapen ekonomiko eta administratiboen inguruan, klausula agiri honetan jasotakoek aginduko dute.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

# I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

## I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

### 1. Kontratazio prozeduretako izapideetarako lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko beharkizunak

#### 1.1. Administrazio beharkizunak:

a) Ziurtagiri digital bat izatea, lizitazio elektronikorako sisteman identifikazio eta sinadurarako bitarteko gisa onartuta dagoena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:

- Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria)
- Nortasun agiri nazional elektronikoa
- Camerfirma (entitatea, herritarra)

Baimendutako ziurtagirien zerrendak aldaketak izan ditzake. Lizitazio elektronikorako sistemara sartzeko atariak momentu oro baimendutako ziurtagiri elektronikoen zerrenda eguneratua erakutsiko du.

Entitate motako ziurtagiria berritzerik ez badago ere, posible izango da horiek erabiltzea iraungi bitartean edo horiek baliogabetu arte.

b) Egoera hauetako batean egotea:

a) Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan

b) Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman

c) Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEaren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

#### 1.2. Beharkizun teknikoak:

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/eu_02/requisitos_tecnicos.html

### 2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:

Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da:

https://www6.euskadi.net/lizitazioa/

**Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua:**

**945 016 298**

## II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dira, helbide honetan: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek **I. eranskin** honen **gehigarrian** horretarako zehaztutako helbide elektronikora.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

**I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK**

IDENTIFIKAZIO DATUAK

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

** Aldi baterako enpresa elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko*

**ADIERAZTEN DU(TE)**

Kontratua (*izena eta espediente kodea*) adjudikatzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira [1]:

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

| **Kalea, plaza, hiribidea…** | **Zk.** | **Solairua** | **Eskua** |
|---|---|---|---|

| **Udalerria** | **P.K.** | **Probintzia** |
|---|---|---|

| **Telefono finkoa** | **Mugikorra** |
|---|---|

**Abisuetarako helbide elektronikoa:**

**Hartzailea:**

**Jakinarazpena edo komunikazioa jasotzeko aukeratutako hizkuntza:** Euskara ☐ Gaztelania ☐

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

[1] *Hainbat enpresak adjudikaziodun izanez gero formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa eratzeko konpromisoa aurkezten badute, jakinarazpen eta komunikazioetarako helbide bakar bat aurkeztu beharko dute.*

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

**II. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA**

IDENTIFIKAZIO DATUAK

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**
**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

IDENTIFIKAZIO DATUAK

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**
**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

IDENTIFIKAZIO DATUAK

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**
**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

** Eredua egokitu behar da, adjudikaziodun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko*

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

**Kontratuaren izena** **Erreferentzia kodea**

**ADIERAZTEN DUTE**

**1.** Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziako kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, honako partaidetza portzentaje honekin:

| Enpresaren izena | % |
|---|---|
| | |
| | |
| | |



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

**2.** Honako hau izendatzen dutela enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun arrunt, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

| | |
|---|---|
| Izen-abizenak | |

**Tokia eta data:**

| | |
|---|---|
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

## III. ERANSKINA.- ABAL EREDUA

KREDITU ENTITATEAREN EDO ELKAR BERMATZEKO SOZIETATEAREN DATUAK

**Izen soziala** **IFZ**

**Jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidea:**

**Kalea, plaza, hiribidea…** **Zk.** **Solairua** **Eskua**

**Udalerria** **P.K.** **Probintzia**

AHALDUNA(K)

**Izen-abizenak** **IFZ**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean honako honen abalemaile solidario moduan eratzen dira goian aipatutako entitatea eta, bere izenean eta ordezkaritzan, egintza honetan hura behartzeko ahalorde nahikoak dituzten pertsonak, dokumentu honen behealdean aipatutako ahalorde askiespenaren arabera:

PERTSONA EDO ENTITATE ABALATUAREN DATUAK

**Izen-abizenak / Sozietate izena** **IFK / IFZ**

**Kontratuaren objektua edo abalatuak beregain hartutako betebeharra**

**Kontratazio organoa**

**Abalaren zenbatekoa (hizkiz eta zenbakiz)**

Entitate abal emaileak bere erantzukizunez aitortzen du betetzen dituela Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 56.2 artikuluak aurreikusten dituen baldintzak. Abal hau solidarioki ematen da obligaziodun nagusiarekiko, berariaz uko eginez eskusio eskubideari, eta kontratazio organoak egin lehen errekerimenduaz ordaintzeko konpromisoaz, Herri Administrazioen kontratuei buruzko legedian, hori garatzeko arauetan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 4/2007 27 Foru Arauan aurreikusten diren baldintzetan betiere.

Abal hau indarrean egongo da, harik eta kontratazio organoak edo horren izenean jardunez legez horretarako gai denak, deuseztatzeko edo itzultzeko baimena ematen duen arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta legedi osagarrian ezarritakoarekin bat.

**Tokia eta data:**

**Entitatearen helbidea:**

**Ahaldunen sinadura:**

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

**IV. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA, ERANTZUNKIZUN ADIERAZPENAREKIN**

IDENTIFIKAZIO DATUAK

**1. abizena, 2. abizena, izena** **NAN/IFZ**

☐ **Norberaren izenean**
☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

**Kontratuaren izena** **Erreferentzia kodea**

Jakinda zeintzuk diren kontratazio espedienteari dagokionez eskatzen diren baldintzak eta beharkizunak, proposatzen d(it)u honako prezio hau(ek) eta, hala badagokio, formula bidez ebaluagarriak diren gainerako elementuen eskaintzak:

**1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA**

| **ESKAINTZA EKONOMIKOA**<br>**LETRAZ ETA ZENBAKIZ** | |
|---|---|
| PREZIOA (letraz) | euro |
| PREZIOA (zenbakiz) | € |
| BEZa (% 21 ) | € |
| **GUZTIRA** | € |

**2.- FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO BESTE ELEMENTU BATZUK**

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Bere erantzukizunpean, enpresaren titular gisa/berak ordezkatutako enpresaren izenean:

1.- Eskaintza aurkezten duena **ordezkatzen du**.

2.- Berak ordezkatzen duen enpresak badu ahalmena Administrazio Publikoarekin kontratatzeko, zeren eta, jarduteko gaitasun osoa izanik, ez baitago sartuta SPKLren 71. artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean.

3.- Aldi baterako enpresa elkartea da:

☐ BAI eta, eskaintza aurkeztean, adierazpen honekin batera aldi bateko enpresa elkartearen osatzeko konpromisoa atxikitzen da**,** **II. eranskinari** jarraikiz.



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

☐ EZ

4.- Izan baditu ezaugarrien taulako **13. atalean** eskatutako baimen edo gaikuntza profesionalak, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta profesional eta teknikoa edo, hala badagokio, dena delako sailkapena,

Kaudimen hori akreditatzeko:

☐ BAI, oinarrituko da beste enpresa baten baliabideetan, eta, horretarako, badu idatzizko konpromisoa.

☐ EZ da oinarrituko beste enpresa baten baliabideetan.

5.- Adierazten du bere eskaintza prestatzerakoan kontuan izan dituela arlo hauetan indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak (zergak, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa, eta desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratze eta laneratze arloa) eta desgaitasunen bat duten pertsona kopuru edo portzentaje jakin bat kontratatzeko eta ingurumena babesteko betebeharra.

Era berean, adierazten du baldintza agirietan ezarritako egikaritze baldintza bereziekin ados dagoela eta bat egiten duela.

6.- Konpromisoa hartzen du ezaugarrien taulako **14. atalean** adierazten diren profil eta zehaztapenei jarraikiz pertsonak eta material aldetiko bitartekoak kontratua egikaritzeari atxikitzeko.

7.- Enpresa adjudikazio hartzaile gertatzen bada, lan baldintzen inguruan eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du; informazio hori kontratua adjudikatu ondoren kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien baldintzei buruzkoa izango da.

8.- Zehazki, adierazten du espresuki, kontuan hartu dituela eskaintza eratzerakoan, gutxienez, Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboaren lan baldintzak (zehazki, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako hitzarmen horretan dagoen azken testua), aplikagarri izanez gero, kontratuaren objektu den jarduna sektorekoa baino onuragarriagoa den enpresako beste hitzarmen edo itun baten baitan aritzen diren langileak adieraziz, zeina jarraian adierazten baita:

9.- Adjudikaziodun ateraz gero:

☐ BAIMENA EMATEN DU,. espresuki, administrazio publiko kontratatzaileari lagatzeko enpresa ordezkatuak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dituen zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekin dituenak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa

☐ EZ DU BAIMENIK EMATEN

10.- Atzerriko enpresa da:

☐ BAI, eta jurisdikzio eta auzitegi espainiarrei men egiten die, berari egokitu legokiokeen atzerriko foruari uko eginda.

☐ EZ

11.- Berak ordezkatzen duen enpresa:

☐ BADAGO Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.

☐ EZ DAGO Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako egoeratan.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ du kontratuaren adjudikazioan parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin batera ere.

☐ BAI, kontratuaren adjudikazioan parte hartzen du, talde bereko enpresekin edo banakako proposamenak aurkezturik Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluak ezartzen dituen aukera kasuetan sartuta daudenekin; enpresak hauek dira:

| IFZ/IFK | Enpresaren izena |
|---|---|
| | |
| | |
| | |



JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

(*) Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua: "Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak.

12.- Adjudikazio irizpideen eragina ebaluatzera behartzen da, bere proposamenean konprometitutako kasuetan, eta baita aplikatu diren exekuzioko baldintza sozial bereziak ere, V. eranskinak jasotzen duen eredua erabiliz, administrazio klausula partikularren agiriak (36. klausula) zehazten duen momentuan aurkeztuko dena.

13.- Konpromisoa hartzen du Gipuzkoako Foru Administrazioaren KONTRATAZIO PUBLIKOARI APLIKATZEKO JOKABIDE KODEA ETA ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN ESPARRUA, Foru Gobernuaren Kontseiluak 2017ko irailaren 5eko saioan onartua eta honako helbide elektroniko honetan lizitatzaileen eskura dagoena, goitik behera betetzeko:

https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/923643/Kontratazio_kodea-eu.pdf/5bbab274-c9cb-5b37-7e07-6f7fb1964ff6

Eta, horrenbestez, ez du inolako interes gatazkarik ez beste lizitatzaile batzuekiko edo proiektuan interesatutako beste alderdi batzuekiko antzeko inolako harremanik. Enpresak bere gain hartzen du kontratua egikaritzeko epean zehar egoera hori sortzen bada horren berri emateko botere adjudikatzaileari.

14.- Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzial jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako dokumentu, informazio eta alderdiak: [2]

1.- ……………………………………………………………..
2.- ……………………………………………………………..
3.- ……………………………………………………………..
………………………..………………………………………………

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:

1.- ……………………………………………………………..
2.- ……………………………………………………………..
3.- ……………………………………………………………..
………………………..………………………………………………

**Tokia eta data:**

| | |
|---|---|
| *Enpresaren izena* | *Sinadura* |

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

[2] Konfidentzialtasun adierazpenak ezingo ditu hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzial. Enpresak ez badu berariaz konfidentzial jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzial jo ez den daturik konfidentzial jotzea.

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

**V. ERANSKINA.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEEN EBALUAZIO SISTEMAREN PROPOSAMENA ETA IZAERA SOZIALEKO BALDINTZA BEREZIAK**

IDENTIFIKAZIO DATUAK

| **1. abizena, 2. abizena, izena** | **NAN/IFZ** |
|---|---|

☐ **Norberaren izenean**

☐ **Ordezkatutako enpresaren izenean**

**Ordezkatuaren sozietate izena:**

**Ordezkatuaren IFK:**

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

| **Kontratuaren izena** | **Erreferentzia kodea** |
|---|---|

Aipatutako enpresak kontratua egikaritzean **ADIERAZTEN DU:**

1.- Kontratua egikaritzeko …. emakume jardun dira, langile guztien % …. Inguruan.

2.- Enpresan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz diagnostiko bat egin du, edo eta laguntzaz baliatzen diren pertsonez, zeinetik abiatuta diseinatu eta aplikatu diren berdintasunerako … (kopurua) ekintza, … pertsonari mesede egin diena.

3.- Berdintasunaren inguruan …. formakuntza ordu diseinatu eta eskaini ditu, non …. pertsonak parte hartu duten.

4.- Enpresako langile bat izendatu da edo teknikari bat kontratatu da berdintasuneko arduradun gisa.

5.- Protokolo bat edo neurri zehatz batzuk onetsi dira lanean sexu erasoak eta sexua dela-eta egiten diren erasoak saihesteko eta horiei aurre egiteko, zeintzuen diseinuan …. pertsonek parte hartu duten eta …. pertsonaren kalterako edo onurako diren.

6.- Protokolo zehatz bat onetsi da enpresan hizkera ez-sexista erabiltzeko. Hori diseinatzeko … pertsonek hartu dute parte eta …… pertsonari jakinarazi zaie.

7.- Kontziliazio neurriak diseinatu eta aplikatu dira. Neurri horien onuradunak …. pertsona izan dira, horietatik …. emakumeak. Hauek izan dira neurriak (adierazi dagokiona: emakumeen eta gizonen ardura partekatua sustatzeko neurriak; bereziki, bitarteko propio, pribatu edo sozio-komunitarioak izatea adingabeei eta mendekoei arreta emateko: zerbitzu txekeak, jangelak, haurtzaindegiak, eguneko zentroak edo ludotekak, hobekuntzak lan jardunaldian, eszedentziak, lizentziak edo baimenak, ordutegi malgua, telelana, edo zerbitzuak moldatzea edo birzuzentzea)

8.- Enpresa hitzarmen bat aplikatu da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzera bideratutako neurriak jasotzen dituena, non, horietatik …. (adierazi kopurua) neurri hartu diren, eta horiek aplikatzea ….. pertsonaren onurarako izan den.

9.- Emakume eta gizonen berdintasunaren arloko ziurtagiria edo egiaztagiria dago, eta kontratuaren egikaritzeari aplikatzen zaizkion akzioak on egin die …. pertsonari.

10.- 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan, errespetatu eta bete egin da % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko kuota % 2 izatea, era horretan, enpresaren langile kopurua …. pertsona izanda, bertan % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak …. dira.

JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee

11.- Langile guztientzat errespetatu da, …. pertsonaz osatutakoa indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa sektoriala eta lurraldekoa zehatz-mehatz bete dadin.

12.- Kontratua egikaritzean hizkuntza ez sexista erabili da, saihestu du emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu du, balio hauek izanik: berdintasuna, presentzia orekatu bat, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero identitate plurala. Egindako materialak guztira (iragarkiak, kartelak, liburuxkak, irudiak, dokumentuak eta abar) irizpide horiekin kalkulatua, ..... (adierazi kopurua) da, eta kalkulatzen den irismena ...... (adierazi kopurua) pertsonenganakoa izango dela.



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **JAKI5003a88d-9526-41b1-a69a-ed7bd219ebee**
*Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:* ***https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks***
*Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Titulo:** | Pliego Cláusulas Administrativas Euskera.pdf |
|---|---|

Sinatzailea 1/Firmante 1: ELIXABETE MARTINEZ IRURETAGOIENA - 15968065Q
Data/Fecha: 2020/04/03 13:15:40